



ARGIA

**ANGELA
DAVIS**

**ELKARRIZKETA
ASKATASUN
BORROKEZ**

HORREZ GAIN:

» SIRIAKO GERRA

» KATALUNIA DIADAREN BEZPERATAN

» IKASTURTE BEROA ESKOLETAN



Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA



Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



ESKAERAK: www.argia.eus/denda/makilak | denda@argia.eus

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 943 371 545

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Net Hurbil
- 17 Hor dena gailu

IRITZIA

- 18 Asier Blas
- 19 Rosa Maria Martin Sabaris
Edu Zelaia
- 20 Inma Errea
- 21 Bea Salaberri



ANC eta Òmnium beldur dira aurtengo Diadarako duten erronka handiaz, iazko Via Catalanaren arrakasta ikusita. (ARGAZKIA: ANC)

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
CATHY EDWARDS
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA:
THOMAS SAMSON / AFP / GETTY IMAGES

SAKONEAN

- 12 | Angela Davis: "Politikaren arreta-gunea komunitateen beharretara eraman behar da" / Maria Colera Intxausti
- 22 | Erreferendum loteslea deika da Kataluniako Errepublikaren bide orrian / Xabier Letona
- 28 | Palma-landaketak Kongon: etekinen apurrik ere ez bertokoen garapenerako / Oskar Epelde
- 32 | Ikasturte berria Hego Euskal Herrian: motxila bete kezka / Mikel Garcia Idiakez
- 34 | Gustavo Suarez Lucas, Kolonbiako buruzagi indigena / Joanes Etxebarria
- 36 | Euskara: zerbait gertatzen ari al da Aian? / karkara.eus
- 44 | Yoyes, mitoak estalitako jardun intelektuala / Gorka Bereziartua Mitxelena

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Adierazpen askatasunaren mugak enpresen esku

Tiza elkarteak antolatzen duen Nafarroako komikiaren azokak H28 aldizkari saretirikoko kideen bi lan debekatu ditu. Hasiera batean antolatzaileek lanen hautaketa H28ko kideen esku utzi bazuten ere, Guardia Zibila eta tortura eta Opus Dei eta pedofilia –azken hau Asisko Urmeneta ARGIAko kolaboratzaileak egindakoa– elkartzen dituzten lanak azokatik kanpo utzi dituzte beren “eduki desegokia” argudiatuta. Lan horiek erakutsiz gero, etorkizuneko edizioetan azoka babesle pribatu batzuen laguntzarik gabe geratzeko arriskua ere aipatu dute antolatzaileek. Erakunde publikoez gain, Nafarroako Kutzaren fundazioak, La Caixak eta El Corte Inglesek diruz laguntzen dute azoka. Adierazpen askatasuna eta interes pribatua ez dira inoiz ondo konpondu, ezta gaur egungo Nafarroan ere.

Argazkia: Irantzu Pastor



“Bakea finkatzea eraikitzea baino zailagoa da beti”

Enrique Santiago,
FARCen aholkularia
(La Marea)

argia.eus/multimedia



Bizilagunak, aldameneko familia

Herri berean bizi diren familiak harremanetan jartzea helburu, binaka eta bazkari baten bueltan, hemen jaiotakoak eta beste herrialde batzuetatik etorritakoak elkar-tzen ditu proiektuak.



Iruñeko gaztetxe berria

Alde Zaharreko espazio autogestionatua ezagutzeko aukera asanbladako bi kide-ren eskutik.



Mola eta Sanjurjoren gorpuzkiak aterako dituzte

Euskalerria Irratia
@fm914

Azaroaren 16an ekinen dio Iruñeko Udalak Erorritakoen monumentuko kriptan dauden gorpuzkiak ateratzeko prozesu administratiboari, Paco Etxeberria forentseak zuzenduta. Hobietatik aterako dituzte zortzi pertsonen hezurak, tartean Emilio Mola eta Jose Sanjurjo II. Errepublikaren kontrako kolpistenak. *Bando Nacional* delakoaren parte izan ziren kriptan dauden gainontzeko sei pertsonak ere, denak gerrak iraun zuen hiru urteetan hildakoak. Orain, euren senideen esku geratzeko dira gorpuzkiak.

“Hau ez da errebantxismoa, ezta batzuen edo besteen alde egitea, indarrean dagoen legea betetzea da, eta gure historiaren parte batekin justizia egitea, egoera hau ezin baita denbora gehiago luzatu, eta ez baitugu ulertzen zergatik gaur egun arte

ez den hilerri hau itxi, adierazi du Joseba Asiron alkateak.

“Ausartu zaitez bizi direnekin”

Alkatearen kontrako pintada mehatxugarriak agertu dira hiriburuko hainbat tokitan, “Asiron, ausartu zaitez bizi direnekin” esanez. Esaldien aldamen banatan karlista erreketen gurutze gorria ageri da margotuta.

Frankismoko giza eskubideen urraketei buruzko 152 txosten

Bestalde, Iruñean 36ko Gerran errepresioa jasan zuten 92 lagunen lekukotzak eta gai berari lotutako 2.300 dokumentu digitalizatu bildu ditu Iruñeko Memoriaren bulegoak. Orain salaketak aurkeztuko dituen aztertuko du Udalak. 300 lagun erail eta 1.000 baino gehiago kartzeleratu zituzten Iruñean, Gerra Zibilean, gerraostean eta diktaduran, Udalak azaldu duenez.

“Brasil subordinazio prozesu batean sartzen ari dira”

ANTONIO DE MIRANDA, BRASILGO LURRIK GABEKOEN MUGIMENDUKO BURUZAGIA

Dilma Rousseff presidentea kargugabetzea erabaki du Brasilgo senatuak, ustelkeria kasu bat dela-eta. “Estatu kopea” salatu du askok, baita Antonio de Miranda Lurrik Gabeko Mugimenduko kideak ere. Rousseffen kontrako *impeachment*-aren zergatietako bat azaldu dio herrialde hartan izandako Askapenako brigadari: “Atzerriko enpresei Brasilgo lurrak -250.000 hektarea- erosteko ateak ireki nahi dizkiete”. **GAUR8 (2016-08-27)**



Hobi komunak

Desagertuen Nazioarteko Eguna

Kanbodia da munduan hobi komun gehien duen herrialdea eta horren ondoren Espainiako Estatuak. Euskal Herrian 277 hobi zenbatu dira.

Espainia

Kanada

Mexiko

Guatemala

Kolonia

Txile

Argentina

Azken hamarkadetan beste hainbat tokitan ere aurkitu dituzte hobi komunak

Errepresio frankistaren ondorioz. 16 urtetan 350 hobi industu dira Aranzadiren arabera

2.500 hobi

Mendebaldeko Sahara

Bosnia-Herzegovina

Irak

Hego Sudan

Kanbodia

20.000 hobi

Khmer gorrien errepresioaren ondorioz

8.500

gorpu ateratu dituzte lurpetik

114.000

pertsonaren gorpuak desagertuta daude oraindik Espainiako Estatuan
(Nazio Batuen Erakundearen arabera)

Egilea: Urko Apaolaza Avila



BEÑAT IRASUEGI

Interes ekonomiko-militarrek migratzaileekin topo egiten duten irla

Beñat Irasuegi / Ruth Ayllon

@birasuegi @RuthAyllon

Lampedusako errealtatea ezagutzen eta elkartasun sareak sortzen ari dira egunotan Euskal Herritik joandako Harresirik Gabe egitasmoko kideak. Irlan ikusten ari direnaren testigantza hau idatzi dute:

72 ordu, hori da migratzaile bat Lampedusara iristen denean sistemak atxikita egon daitekeen denbora. Eta hori da teoriarik Europak Mediterraneoan sortu duen muga erraldoi honetan Lampedusari eman dion tokia, lehen harrera eta klasifikazio tokia izatearena. Mugak, migrazioaren pribatizazioa, militarizazioa, turismo masiboa, irla honen errealtatean oso txertaturik dauden gaiak dira.

Europak itsasoari eman dio muga naturala egiteko lana, lan zikina egitearena, eta bertan hil dira 30.000 migratzaile baino gehiago, 2000. urtetik hona. Mugak gero eta urrutiago daude, Espainiak Marokorekin egindako akordioarekin Mediterraneoetik Sahara desertura urrundu da, edo Europak Turkiarekin duen akordioarekin Egeotik Anatoliara. Lampedusan ere urrundu da muga, Mediterraneoan Libiatik 20 miliatara zehazki, eta horretarako arrazoiak bi dira: interes militarrek bultzatutako Afrikako herrialdeen kontrol militarra, eta migrazio ibilbidearen estrategia aldaketa. Italiako armada migra-

tzaileekin zetozen ontziak suntsitzen hasi zenetik bidea garestiegi bihurtu zen migrazio mafientzat, eta ordutik migratzaile baltsa kaxkarragoak Libiatik kilometro gutxi egiteko autonomiarekin bidaltzen hasi ziren itsasoan barna. Han, itsasoaren erdian jasotzen dituzte Italiako armadak, Frontex-ak eta beste hainbat erakunde armatu eta zibilek. Horren eraginez ere, hildakoen kopurua asko handitu da, erruleta errusiarra baita bidaia: edo erreskatatzen dituzte migratzaileak bidean edo ez dira inoiz iritsiko Lampedusara. Esan digutenez, azken asteetan Libian berriro gerra egoera okertzen ari denez, itsasoko bideak berriro urrutiratzen ari dira, eta pertsona asko Egiptotik ari da iristen.

Bestalde, klasifikazio eta alojamendu zerbitzuak ez dira altruismoagatik egiten. Garai batean zenbait irabazi asmorik gabeko elkartek egiten zituzten lan horiek, baina 2002. urtean irizpideak aldatu eta Italiako administrazioak bere gain hartu bezain pronto pribatizatu egin zituen, negozio borobila bihurtuz. 2002 aurretik 1.000 migratzaile inguru pasatzen ziren urtean; orduztik urteko kopurua 15.000 pertsonara iritsi da. Izan ere, Acoglienza zentroak kudeatzen dituzten enpresek kobratu egiten dute hartu eta klasifikatzen duten pertsona bakoitzeko. Lehen arretarako azpiegitura izan beharko lukeena azpiegitura kartzelario bihurtu da.

EKONOMIAREN TALAIAN

Goizukoop, eredu kooperatiboa



Juan Mari Arregi

Euskal Herrian badira urte asko kooperatibagintzaren aldeko apustua egiten dela. Akats larri batzuk izan badira ere, kiebra jo zuen Fagor Etxetresna Elektrikoak kasu, Mondragon Taldea da kooperatiba eredu handiena. Hainbat arlotan dituen milaka langile eta enpresek horrelaxe adierazten dute. Baina eskala txikiagoan badira beste ehunka kooperatiba Euskal Herrian.

Irailetik aurrera martxan egon daitekeen beste proiektu kooperatibo bat iragarri digute orain: Goizukoop. Nafarroako Goizueta herrian kooperatiba izango den gasolindegia jarriko dute. Gaur egun, bertakoek gutxienez 50 kilometro egin behar dituzte joan etorrian Hernani edo Leizaraino errepide kiribildu batetik, erregaia lortu ahal izateko. Herritarrak batu dira egoera horri aurre egin eta komunitateari gasolina era eraginkorragoan eskaintzeko. Dagoeneko 175 herritar egin dira kooperatibista, goizuetarren ia laurdena, eta 90 euroko kuota ordaintzen dute horretarako. Bazkideek, gasolina litro bakoitzeko erositako prezioa baino 10 xentimo garestiago ordainduko dute, eta bazkide ez direnek 13 eta 15 xentimo artean gehiago. 23.000 litro gasolina eta gasolio saldu behar dute gastuak berdintzeko, baina bazkideen kontsumoa kopuru horren %81 izan daitekeela kalkulatu dute; gainerako herritarrek kontsumituko dutenarekin ez zaie zaila izango, beraz, helburua betetzea.

Loratzeko bidean den Goizukoop aurrera aterako balitz adibide polita izango litzateke beste herri batzuentzat, bertakoak elkartu eta arlo ezberdinak zerbitzuak hobetu ditzaten. Herriarekin eta herriarentzat eraiki nahi den proiektua auzolan ariketa handia da.



GURASOS

Abuztock, parte-hartze eskubidearen aldeko jaialdia

DONOSTIA. Donostia. GuraSOS elkarteak deituta, ehunka familia eta herritarrek parte hartu dute Abuztock jaialdian. GuraSOSek erraustegiari buruz erabakitze prozesu bat irekitzeko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta honek emandako ezezkoari erantzuteko ekitaldia izan da Abuztock. Epaitegietan helegitea jarria du elkarteak, baina "bide juridikoa gizarte mobilizazioaren osagarria" da, GuraSOSen arabera. "Errebolta baketsua Aldundiaren erabakia herritarrenganako begirune eza dela adierazteko modua izan da, herritarren ahotsa entzunarazteko bozgorailua, eta batez ere, parte-hartze eskubidearen aldeko aldarria". Bestalde, Kontxako estropadetako bigarren iganderako giza katea deitu du Erraustetaren Kontrako Mugimenduak.

Guggenheim museoa: protestatzen baduzu, kalera

Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

Uda honetan euren lan baldintzak hobetzen saiatzeko mobilizatzen hasi ziren eta Guggenheimeko arduradunek labana atera dute: museoko hemeretzi langile kalera joan daitezke hilabete bukaeran.

Hemeretziren orde, hiru

Kaleratutako langileak ez dituzte ordezkaturiko. Horren orde, egun osoko hiru lanpostu sortu nahi ditu museoak, hura kudeatzen duten instituzioekin "oso lotuta" dagoen Campo Ochandiano enpresak hautatuta.

Instituzioei ardura eske

Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udala daude museoaren aginte-organoetan eta langileen esanetan, kaleratzeak babesten dituzte. Hala adierazi diete Guggenheimeko bi arduradunek.

Irailaren 5etik greba mugagabea

Greba mugagabea ekin diote langileek pasa den astelehene-tik. Azken urteotako "prekarietate eta eze-gonkortasun egoera" salatzen jarraitzeaz gain, "lanpostu guztiei baldintza duinetan eustea" jarri dute helburu.

LOBBYAK

€
106

milioi euro bideratzen dizkiete enpresa handienek Europar Batasuneko erakundeei presio egiteko, Lobbyfacts-en arabera. Diru-eaile handien artean daude energia fosilekin lan egiten dutenak, Microsoft eta bankuak.

%40

igo da multinazionalen EBn presio egiteko erabilitako dirua.



APPLE-REN ZORRA

Applek Irlandari 13.000 milioi euro itzuli behar dizkiola ebatzi du Europako Batzordeak, urtetan ordaindu gabeko zergengatik. Zerga gutxiago ordaintzeko sare konplexu bat baliatu zuen konpainiak.



ETXARRI ARANATZEN, AMNISTIAREN ALDE

Ehunka lagun elkartu ziren irailaren 3an Etxarri Aranatz, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak deituta, gaixo dauden presoak aska ditzatela eskatzeko. Guardia Zibilak agente asko bidali zituen herrira, Carmen Alba Espaniako Gobernuako ordezkariak manifestazioa debekatu ostean.



PROTESTAK BERNAT ETXEPARE LIZEOAN

Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasleen kopuruak gora egin du eta ikasleak hiru gelatan beharrean lau gelatan banatzeko eskatu dio ikastolako zuzendaritzak Hezkuntza Ministerioari. Sailak eskaria ukatu ostean, mobilizazioak izan dira.

Turkiak Jarabulus hartuz karta banaketa berria eragin du Siriako gerran



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Abuztuaren 24an Turkiako armadak Siria inbaditu zuen. Turkiarren babesarekin hamabi orduren buruan Jarabulus mugako herri estrategikoaren jabe egin ziren AEBek patrozinatutako miliziak, bide batez gudari kurduak atzera egitera behartuz. Jarabuluseko gertakizunetan jauzi kualitatiboa ikusi dute “ordezkari bidezko mundu gerra” hau gertutik behatzen duten aditu batzuek.

Tomas Alcoverrok, Europak Ekialde Hurbilean dauzkan kazetarien arteko jakintsuenetakoak, idatzi ohi du Sirian Mundu Gerra bat borrokatzen dela, epizentro erabakiorra Alepoko guduan daukana. “Denak denek kontra” borroka dirudien kaosean, aldaketa handia gertatu da San Bartolome egunean: Turkiak inbaditu du Siria, bere babeseko miliziei Jarabulus hiria oparitzeko.

Errusiarrek belaunetaraino sartuta daude Siriako hareatzan. AEB eta OTAN bezala. Udan agertu dira Britainia Handiko eliteko tropen argazkiak, basamortu siriarretik iritsiak. Monarkia arabiarrek finantzatzeko dute gerra. Turkiak islamistei atzeguardia bermatu dien moduan. Dena da jakina, baina dena aldatu dezake turkiarren urratsak.

Jarabulusekoa hiru egun lehenagotik iragarri zuen *Moon of Alabama* blogak, kurduak izugarri gogor kritikatzeko zuten analisi batean. Gertatu berria zen Hasakahko borroka: abuztuaren 18an miliziano kurduak eraso zieten herri honetan Damaskoko gobernuak dauzkan militarrei. Aurretik inoiz gertatu gabeko zerbitu zen, Assadren tropen eta kurduen artean bazegoelako elkarri ez erasotzeko itun tazitua.

Kurduak AEBetako hegazkinen eta kainoen babesean jipoitu baitzuten Assad, zioen *Moon of Alabama* kurduak hanka sartzen zutela Siriako iparralde osoaren jabe izan nahian: “Turkiaren artilleria hasi da Estatu Islamiarrak daukan Jarabulus ingurua txirtilatzen, eta

‘siriar errebelde moderatuak’ prestatzen ari dira herrian sartzeko. Artilleria turkiarrak YPG kurdua ere kolpatzen du. Bere bi aliatuen artean, nori uste duzue lagunduko diotela AEBek?”

Ordu gutxiren bueltan, Turkiako tanke eta soldaduak Siria iparrean sareturik, Estatu Islamiak tiro bat egin gabe erretiratu da duela bi urte bereganatutako Jarabulustik, OTANek eta petromonarkiek babestutako ‘errebelde moderatuen’ –Al Kaeda ere epeltzat daukagu komeni denean– esku geratu da eskualdea, AEBek babestutako kurduak atzera egin dute hilabeteotan hainbeste odolez irabazitako eremuetatik...

Maximilian Popp eta Christoph Reuterrek *Der Spiegel* astekarian idatzi dute Jarabulusekoa inflexio puntua izan dela Siriako gerran: Turkia zuzenean inplikatu da gatazkan eta gerran orain arte ikusi diren aliantza konplikatuak bat batean aldatzen hasi dira, atzo arte etsai izandakoak oharturik badauzkatela interes komunak.

“Hemen bakoitzak –dio *Der Spiegel*– bere gerra egiten du. Turkiak kurduak menderatu nahi ditu. AEBek Estatu Islamiarra zanpatzea baizik ez du nahi. Kurduak beren estatua eraiki nahi dute. Eta errusiarrek nagusiki mundu mailako potentzia direla erakutsi nahi dute”.

Assadek kurduak airez erasotzeak lagundu du, Popp eta Reuterren aburuz, Turkiaren Errusiarekiko etsaigoa epeltzen. Erdogan haserre dago Europa eta



AEBekin bere ustean azken estatu-kolpean nahikoa babes eman ez ziotelako eta, batik bat, Kurdistango gudariei babes handia ematen dietelako. Errusia, bere aldetik, jabetu da Baxar al-Assad ez dizkiola eskatutakoak egiten, ez dagoela negoziaketetan ezertan amore emateko prest, nahiz eta daukan indarra errusiarraren laguntzari zor izan.

Ororen buru, hona analisi honen ondorioak. Elk Siriako eskualde hura galdu du. Kurduak, hanka sartu dutelako, galdu dituzte aliatuak eta eremua, 2016ko abuztuko galtzaile nagusi bihurtuz. Turkiak harremanak hobetu ditu Errusiarekin. Orain Turkiari egoera PKK-k konplikatu diezaioke muga barruan. Baxar al-Assad etsaitu da kurduarekin, eta ordainetan Turkia ez du lehen bezain etsai. Lehen bezala, Assadren etorkizuna Errusiaren eskuetan datza. AEBen arazoa da orain bere bi aliatuak, Turkia eta kurduak, elkarri tiroka ari direla. Azkenik, Errusia da karta banaketa berrian irabazle nagusia.

Errusia ala AEB orain ahulago?

Mark Sleboda Moskuko unibertsitateko soziologia irakasle eta nazioarteko gaietan adituak Facebooken daukan *Gramsci* blogean abuztuko aldaketez *Der Spiegel* egindakoaren oso bestelako analisisa egin du.

Turkiak, AEBen babesean, kontrolatzen dituen miliziekin batera Jarabulusetik aurrera jo eta Al Bab hiria hartu nahiko dute beretzako, horrela Al Kae-



AFP agentziak zabalduetako argazkian, tanke turkiarrak Siriako eremuan sarturik Eufates deitu operazioan, abuztuaren 24an. Erdoganek, batzuen ustez, OTANi eta AEBei lan zikina aurreratu die islamista 'moderatuei' -Al Kaeda eta besteei- Alepo hiri estrategikorako bidea zabalduz. Aldiz, beste batzuek uste dute Turkia aldendu dela AEBen interesetatik eta Damaskoko gobernuak Iran eta Errusiarekin eratutako interes multzora hurbildu dela. Denak datoz bat galtzaile nagusi kurduak izendatzeko.

dari bermatzeko aireko erasorik gabeko eremu aske bat, Errusia eta Siriako armadaren hegazkinen beldurrik gabe.

Erdoganek *de facto* airezko erasoen beldurrik gabeko eremua eskaini die OTANek eta Golkoko monarkiek babes-tutako matxinoei, lasaiago lor dezaten Alepo hiri estrategikoaren konkista. Alepon dago gakoa, Siriako kurduen kontrako erasoa bigarren mailako kontua da turkiarrentzat, Slebodaren ustean. Estatu Islamikoak ongi zekien zein zen jokaldia eta tiro bat eman gabe alde egin du Jarubulus inguruetatik.

Laburbilduz, Erdoganen abuztu amaierako erasoak lau osagai ditu. Bat, Jarubulus kendu Estatu Islamikoari eta eman, Turkia, Qatar eta Saudi Arabiaren eskumakilarik izanik irudi hobea daukaten beste islamistei. Bi, Jarubulus eman Al Kaedari kurduak berenganatu ez de-

zaten. Hiru, Al Kaedari hegazkinezko erasorik gabeko eremua bermatu. Lau, lanak aurreratu OTANeko neokontserbadoreen *A plana* posible ez balitz -Baxar al-Assad agintetik kentzea- *B plana* errazteko, alegia, Siria zatitzeko.

Eta Errusia? "Beldur naiz -dio Slobodak- azkenean Errusiak atzera egin eta ahal duenarekin konformatuko dela, III. Mundu Gerra lehertu ez dadin. Horra Kremlinaren ahuldadea, [1990eko hamarkadan adostua] OTANek gainditu ezin omen zituen lerro gorriak banan bana erorita gero eta hurbilago daudela Errusiatik. Azkenean Errusia bera izango denean jomuga, ez du edukiko lagun bakar bat aldean". Siriako gerra Moskutik horrela ikusten da.

Siriako koiunturaren oso bestelako irakurketa dauka *Moon of Alabama* blogak. Hona, motzean. AEBek oker egin dituzte

hasieratik gauzak Sirian eta Turkiak eskuetatik ihes egin dio, Errusia-Siria-Iran taldearekin tratua bilatzera. AEBk beren eskualde propioa nekez segurtatuko dute Sirian, gerrillari kurduak odolustu direlako aurreko batailetan. Erdogan berrantolatzen ari da gerrillari taldeak, bere komenentzian. Eta Assad konformatuko da matxinoei eremuak utzirik, Damaskorentzako lehentasunezkoak diren hiri eta eskualdeak gotortzeko.

Geopolitika eta jokoen teoriaz landa, triskantzak gupida gabe darrai. 17 milioi biztanle dauzkan Siriak 282.000 eta 470.000 arteko herritar kopurua ikusi du hiltzen 2011ko matxinadaren ondoren sututako gerran. 7,6 milioi jende bizi da Sirian bertan bere jaioterritik ihes eginda eta lau milioitik gora -bost milioi diote batzuek- aurkitu dira herrialdetik ihes egitera behartuta. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Angela Davis, ekintzaile eta pentsalaria

«Politikaren arreta-gunea komunitateen beharretara eramán behar da»

Zapalkuntzen gaineko gogoetei sakonera eta konplexutasun-geruzak eransten dizkion pentsalari emankorra dugu Angela Davis. Otsailean izan zen gure artean, GITEk gonbidatuta. Feminismoaz, espetxeaz eta hau dena aldatu beharraz jardun zuen, besteak beste.



Maria Colera Intxausti

@mariacolera

Zer diozu geure burua babestera zuzendutako indarkeria feministaren erabilera diziñinatzaile eta eragoztaileari buruz? Autodefentsa feminista zer da zuretzat? Zein litzateke komunitate mailako erantzun egokia, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko?

Ni kontu handiz ibili naiz beti "indarkeria" terminoa erabiltzeko garaian. Teoria kritikoaren ikerlaria naizen aldetik, beti gogoratzen diot neure buruari aukeratzeko ditudan tresna kontzeptualek aditzera eman nahi dudana horren kontra jardun dezaketela berez. Horrela bada, "autodefentsa" eta erasotzailearen indarkeria berdintzat ez hartzen saiatzen naiz. Eta autodefentsan trebatzearen alde egiten dudanean, indarkeria misoginoa arraza-, genero- eta klase-menderakuntzako sistemekin lotzen dituen azterketa eta estrategia bat dago horren atzean, esplotazio eta indarkeria oro gure gizarteetatik ezabatu nahi dituen estrategia bat, alegia.

Joan den urtezahar gauean *Women, Race and Class*-en (Emakumeak, arraza eta klase) salatu zenuen bortxatzaile beltzen mitoa ikusi genuen Kolonian, "itxura arabiar eta ipar afrikarreko" gizonen gorputzetan, *purplewashing* delakoaren adibide berri batean, hau da, emakumeen ustezko defentsa erabiltzea asilo-eskatzatzaileak eta lege kanpoko etorkinak kriminalizatzeko. Zer diozu emakumeen eskubideak (buruko zapia, bortxatzaile beltzak, Afganistango emakumeen zapalkuntza...) beste gurutzada batzuetarako erabiltzeko joera horretaz?

Arrested Justice: Black Women, Violence, and America's Prison Nation [Justizia atzeratua: emakume beltzak, indarkeria eta AEBetako espetxe-nazioa] liburuan, genero indarkeriari lotutako arazoak konpontzeko kriminalizazio teknologietara jotzeak dakartzan arriskuak azaleratzen ditu Beth Richiek. Haren iritziz, AEBetako indarkeriaren aurkako mugimendu gailenak okerreko bidea hartu

zuen polizia eta espetxea aukeratu zituenean "emakumeak" gizonen indarkeriatik babesteko estrategia nagusitzat. Erraz aurreikusi zitekeen dagoeneko poliziaren hiperzaintzaren mende zeuden eta espetxe-populazioaren hazkuntzean neurritz kanpoko pisua zeukaten komunitateetako gizonak izango zirela "emakumeak" seguru mantentzeko ahaleginen jomugan gehien egongo zirenak. "Emakume" kategoriaren erabilera orokor eta hedatuenak, bestalde, kategoria horren baitan gertatzen den ezkutuko arrazializazioa ezkututzen zuen, zeinaren arabera "emakume" hitzak berez "emakume txuria" esan nahi baitzuen, edo are zehazkiago, "emakume txuri aberatsa". Koloniako kasuak eta arabiar bortxatzaileen diskurtsoak, arabiar gizonak sexu erasotzaile gisa aurkeztu dituen ikuspegi kolonialak areago indartu nahi dituenak, zera gogorarazten digute: zeinen garrantzitsuak diren "emakumeen eskubideen" instru-



Angela Yvonne Davis

1944, Birmingham (AEB)

Filosofoa Kontzientziaren Historiako eta Ikasketa Feministen irakasle emeritua da Kaliforniako Unibertsitatean. AEBetako Alderdi Komunistako presidenteorderako hautagaia izan zen, Pantera Beltzetako kide eta aditua da espetxe sistemaren abolizionismoan, teoria kritikoan eta afroamerikar ikerketetan. Bere idazlanen artean hauek nabarmentzen dira: *If They Come in the Morning: Voices of Resistance* (Goizean badatoz. Erresistentzia-ahotsak) (1971); *Women, Race and Class* (Emakumeak, arraza eta klasea) (1981), aurki izango duguna euskaraz Danele Sarriugartek itzulia; *Are Prisons Obsolete?* (Zaharkituta al daude espetxeak?) (2003); eta *Freedom Is a Constant Struggle: Ferguson, Palestine, and the Foundations of a Movement* (Askatasuna borroka etengabea da: Ferguson, Palestina eta mugimendu baten oinarriak) (2015).

mentalizazio arrazista auzitan jartzen duten eta justizia sozialeko borroken interseksionalitatea azpimarratzen duten teoria eta praktika feministak.

Zer deritzozu identitate-politikei buruz eta zein dira hegemonia neoliberalako aro honetan erdigunea hartu beharko luketen borroka eta proiektu politikoak?

Identitate-politikari aurkitzen diodan arazo nagusia da identitateak askotan naturalizatu egiten direla eta ez direla borroka politikoaren ondorioztat hartzen eta, horrela, klase-borrokarekiko eta arrazismoaren aurkako borrokarekiko erlazioan kokatzen. Trans mugimendua, adibidez, justiziaren alde borrokatzeko esparru garrantzitsu gisa agertu zaigu azken urteotan. Dena den, garrantzi handiko desberdintasun bat dago trans gaien errepresentazio nagusien eta trans mugimendu interseksionalen artean: lehenek identitate indibiduala azpimarratu ohi dute; bigarrenak trans borroken funtsezko zutabetzat hartzen dituzte arraza eta klasea. Gizabanakoak nahi duen hori “izateko” duen eskubidean jarri beharrean arreta, trans mugimendu interseksionalek egiturazko indarkeria (poliziaren, espetxe sistemaren, osasun arloko profesionalen, etxebizitza sektorearen, lan munduaren... esku dagoen indarkeria) da auzitan jartzen dutena, koloreko emakume transek askoz aukera gehiago baitaulek indarkeria hori jasateko, gizarteko beste edozein taldek baino. Bestela esanda, gure gizartearen errotikako eraldaketa bultzatzen dute, egoera jakin eta aldaezin baten barruan asimilatzen saiatu beharrean.

Zuk nola ulertzen duzu interseksionalitatea eta zertan da emankorra gaur egun?

Interseksionalitate kontzeptuak, nik ulertzen dudana moduan, oso genealogia interesgarria dauka, eta 1960ko hamarkada amaieran eta 1970eko hamarkada hasieran du jatorria. Orain eta hemen xehetasun askotan sartzea ezinezkoa zaidanez, puntu batzuk azpimarratuko nituzke: Emakume Beltzen Aliantzaren sorrera, adibidez, Ikasleen Koordinazio Batzorde Ez Biolentoaren barruan (Hegoaldeko Askapen Mugimenduko gazte erakunde garrantzitsuenak) genero gaiak eztabaidatzeko ekimenei zuzendutako erantzun gisa. Aliantzak zioen ezinezkoa zela arrazismoa guztiz eta

zeharo ulertzea sexismoaren azterketa egin gabe, eta baieztapen horri eusteko, Fran Bealek hedapen handia izan zuen artikulua idatzi zuen 1970ean: *Double Jeopardy: To Be Black and Female* (Arrisku bikoitza: beltza eta emakumea izatea). Artikulu hura argitaratu eta denbora gutxira, besteak beste antzutze behartuaren aurka antolatutako emakume puertorricorren borroken berri izan eta gero, Emakume Beltzen Aliantzak izena aldatu, Hirugarren Munduko Emakumeen Aliantza bihurtu, eta *Triple*

“Askatasuna izendatzeko eta esperimendatzeko nahikunde hark gidatzen gaitu oraindik.

Xede hori askoz korapilatsuagoa da gaur egun, XX. mende erdiko AEBetan zena baino”

Indarkeria terminoaz: “Autodefentsa feminista eta erasotzailearen indarkeria berdintzat ez hartzen saiatzen naiz”

Jeopardy izeneko aldizkaria argitaratzen hasi zen, arrazismoa, sexismoa eta inperialismoa ardatz hartuta. Arrazismoari, misoginiari eta gerra inperialistari aldi berean aurre egiteko saiakera militante baten erakusgarri izan zen aldaketa hori. Arraza, genero eta klase kategoriak elkarri lotutako, uztartutako eta gurutzatutako kategoria gisa ulertzeko ahalegin intelektual organiko horren zentzuan ulertzen ditut nik interseksionalitateari buruzko egungo ikuspegi feministak.

Zuretzat zer da emakumea izatea? Eta beltza izatea?

Neure bizitzako iraganeko beste fase batzuetan inoiz imajinatuko nukeen edozein mugatetik haratago zabaldu eta hedatu dira kategoria biak eta, beraz, izateko modu historikoei eutsi nahiko banieke ere, hala eta guztiz ere behartuta egongo nintzateke generoaren eta arrazaren definizio politikoak erabiltzen jarraitzera, kasu bietan ere, bai menderakuntza-egituren eta haiei lotutako ideologiaren ikuspegitik bai egitura horiek desegiten eta ideologia horiei aurre egiten saiatzen diren mugimenduko kolektiboen ikuspegitik. Bestalde, nik beti azpimarratu izan dut praktika erradikala lehenetsi behar zela identitate puru eta sinplearen aurretik. Garrantzitsuagoa da errotikako eraldaketa ahalbidetzea, zure identitateaz imajinatzen duzuna baino. Eta, jakina, lehenago esan dudana moduan, genero- eta arraza- kategoriak –sexualitatea eta klasea bezala– erlazio konplexuagoen barruan baino ez dute zentzua.

Azken urteotan, beren burua “politika berri” gisa aurkezten duten mugimenduen loraldia ikusi dugu Europan. Hala-koek “goikoen” aurka daudela diote, eta “iraultza demokratiko” bat lortzea dute xedetzat, “irribarreen iraultza” baten bidez. Demokraziak zer esan nahi du zuretzat, populismo despolitizatzailearen eta adierazle hutsen garai honetan?

AEBetako ezkerreko jendea –eta ez ezkerrekoa bakarrik, zirkulu kontserbadoreetako ere bai– zeharo txundituta gaude, jakina, Donald Trumpen eragin gero eta handiagoa ikusita. Kontua da erretorika politiko sinplista, muturreko eta faxista joerako horrek langile klaseko komunitate txuriak erakartzen dituela, eta Trump horretaz baliatzen da, hain zuzen ere. Austrian, Frantzia, Polonian eta Europako beste herrialde batzuetan eskuin muturreko pertsonaia eta alderdiek duten erakarmen arrakastarekin gertatzen den bezala (geldialdi ekonomikoak eta errefuxiatuen krisiak agerian utzi du, bide batez, Europaren esklabotza- eta kolonialismo-historiak oraindik daukan eragin ikaragarria), beltzen eta etorkinen aurkako arrazismoaren eskuetik indartzen da eskuin muturreko populismoa. Ezinezkoa izango zaigu eskuin muturreko populismo horri aurre egitea eta etorkizun demokratikoei buruzko

elkarriketak bultzatzea –politikaren arreta gunea gizabanakoaren errepresentazio neoliberaletik komunitateen behar eta nahikundeetara eramaten duten ikuspuntu eraldatzaileen inguruan–, mundu osoan arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako mugimendu indartsuak eraikitzeko gai ez bagara.

Nola askatu gaitezke geure sentimenduen merkantilizaziotik?

Hona iritsita ez dakit posible ote den desira merkantilizatuaren ondorioei erabat itzuri egitea, horixe baita gaur egungo desiraren izaera: kapitalismoak hainbestearino inbaditu ditu gure barne-bizitzak nekez bereiz baititzakegu bata eta bestea. Nolanahi ere, iruditzen zait Marcuseren tradizio filosofikoari jarraitzen natzaiola esaten dudanean kontzientzia kritikoa garatzen saiatu behar dugula ikusteko nola ari garen, geure sentimenduen merkantilizazioaren bidez, kapitalismoaren erreprodukzioan laguntzen. Halako gogoeta negatiboen bidez hasi gaitezke askapenerako aukerak erdi-ikusten.

Bilbon izan zinenean, artearen eta literaturaren garrantziaz jarduteko aukera izan genuen, ulergarritasunaren mugak zabaldu, sen onaren paradigma hegemonikoak txikitu, sinesgarritasunaren alkandora hertsagarria zalantzan jarri, errealtatearen monopolioa hautsi eta geure nozio politikoak itzuli, taxutu eta saiatzeko esparru gisa ulertuta bata eta bestea. Zertan zehazten da hori guztia?

Etorkizun hobeagoetarako bidea erakutsi nahi digutela aldarrikatzen duten gaztaka politikoei bere askapenerako aukera baztertu dutela dirudien honetan bereziki, Marcusek “dimentsio estetiko” eta Robin Kelleyk “askatasun-amets” edo “irudimen erradikal” deritzotenera jo dezakegu. Kapitalismoaren erresumak guztiz itoarazi duena merkantziez gainezka ez dagoen bestelako bizimodu bat irudikatze gure ahalmen kolektiboa izan da. Horrexegatik behar ditugu artea, literatura, musika eta beste kultur jardun batzuk: geure irudimena hezteko, pribatizazioaren hertsiduratik askatu ahal izan dadin.

Urte luzetako borroka da Angela Davisena. Emakume beltz pobreeganako diskriminazioa lehen lerroan ezarri du.



CHICAGOREPORTER.COM



WWW.LIFEBUZZ.COM

Euskal Herrian izan zinenean, Bilbon eskaini zizuten kontzertuan, Nina Simone-ren kantu eder bat aipatu zenuen: *I Wish I Knew How It Would Feel to Be Free* (Aske izatea zer den senti ahal baneza), honela dioena: *"I wish I could break all the chains holdin' me, I wish I could say all the things that I should say, say 'em loud, say 'em clear for the whole 'round world to hear"* (Nahiko nuke eusten nauten kate guztiak hautsi, nahiko nuke esan behar ditudan gauza guztiak esan, ozen esan horiek denak, argi esan, inguratzen nauen mundu guztiak entzun ditzan). Zer da aske izatea eta zein dira hautsi beharreko kateak?

Nina Simoneren *I Wish I Knew How It Would Feel to Be Free* ekarri nuen gogorra, ez, ordea, aditzera eman nahi nuelako, mende erdi edo gehiago igarota, erantzun borobila daukadala haren aske izatea zer den jakiteko grina esplikatze-ko, baizik eta askatasuna izendatzeko eta esperimentatzeko nahikunde hark gidatzen gaituelako oraindik. Xede hori askoz korapilatsuagoa da gaur egun, XX. mende erdiko AEBetan zena baino. Izan ere, balirudike hasiera batean "askatasun" gisa irudikatu genuen zera horre-



FERMIN MUGURUZA

tatik zenbat eta gertuago, orduan eta argiago ikusten dugula askoz konplexuagoa dela kontua, askoz zabalagoa... ■

2016ko otsailean izan zen Davis Euskal Herrian. Argazkian Itxaro Borda eta Maria Colerarekin Biarritzen.

ZIENTZIAKIDE

AZTI-Tecnaliako zientzialariek batera **Pasaiko badiako urak** aztertzeke proiektu batean parte hartu nahi duzu?

Urriko asteburu batean ikertzaileekin jarduteko eman izena **zientziakide.elhuyar.eus** webgunean edo idatzi mezua **zientziakide@elhuyar.com** helbidera.



ERAGILEAK:

elhuyar
Zientzia

azti
tecnalia

LAGUNTZAILEAK:

kutxa
FUNDATIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, EMPLEO Y SERVICIOS
RENTAS Y FISCALIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, EMPLEO Y SERVICIOS
RENTAS Y FISCALIDAD

Evelyn Beatrice Hallek
 ERANTZUN EGIN die
 NAFARROAKO KOMIKI
 SALOIKO ZENTSURATZAILER:

TXARRESTEN DUT DIOZUNA
 BAINA HERIOTZARAINO
 DEFENDITUKO DUT
 HORREN ADIERAZTEKO
 DAUKAZUN eskubidea



CK

TIZA, elkarteakentzako itzulpena:
 <I DISAPPROVE OF WHAT YOU SAY, BUT I WILL
 DEFEND TO THE DEATH YOUR RIGHT TO SAY IT>

Soroskrazia

George Soros, munduko pertsonarik aberatsenetako bat, finantza munduan espekulatuz aberastu zen. Horrez gain, ezaguna da neoliberalismoa eta Mendebaldeko sistema politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren supremazia moral eta materialaren ideiak hedatzen laguntzeagatik. Aspalditik globalizazioaren bertsio *progre*a finantzatu du mundu osoan, indar berezia jarritz herrialde sozialista ohietan eta herrialde soberanista-aurrerakoietan.

Sorosen helburua “gizarte irekiak” eraikitzea omen da. Ideologia honek hiru ardatz nagusi ditu: neoliberalismo ekonomikoa, askatasun indibidualei errespetua eta “giza eskubideen” defentsa. Helburu horiek lortzeko, besteak beste, bi dira bere arma nagusiak: Human Rights Watch eta Open Society (OS). Lehenengoari 100 milioi dolar eman dizkio, bigarrena berriz, berak sortu duen fundazio handiena da. OSk pizgarri ekonomikoak edota karrera profesionalak eskaintzen dizkie elite desberdinei, horrela iparramerikar hegemonia politiko-kulturala hedatzen dute unibertsitateetan, hedabideetan eta gizarte zibilean.

Lan hau oraindik eta garrantzitsua goa bilakatzen da kontrolatu nahi diren herrialdeetan. Jakina da “koloretako iraultzak” bezala ezagutu ziren estatu kolpe bigunetan OS fundazioak paper aktibo garrantzitsua izan zuela. Azken batean, Soros bere helburuak lortzeko estatu kolpeak babestu, giza eskubideen urraketak zokoratu eta gerrei estaldura ideologikoa emateko prest dago.

Berriki DCLeaks web orrialdeak OS fundazioari hackeaturiko 2.500 artxibotik gora atera ditu argitara. Horietan irakurri daiteke OSk Europar parlamenturako hauteskundeetan eragiteko planak jarri zituela martxan. Bestalde,



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Sinets iezadazue, ez da gustuko platera Open Society-ren etsaia izatea unibertsitatean, argitalpenak eta karrera akademikoa egin ahal izateko baliabide asko kontrolatzen dituzte, bereziki gizarte zientzietan, horiek gabe bidea urratzea zailagoa da, baina batez ere horiek zure kontrako boikot batean aktibatzen badira bizitza profesionala arriskuan izan dezakezu

artxiboen artean 2014ko Ukrainako estatu kolpeari buruzko europarren iritzia modelatzeko estrategia ageri da. Espainian, besteak beste, politikari, hedabide, kazetari eta akademikoak zerrendatzen dira kooptatzeko. Twitterreko iritzi sortzaileen zerrenda bat

ageri da baita ere: alde batean, “ukrainar zale kritiko eta analistak” bezala izendatzen diren hamahiru helbide, eta beste aldean, “errusiar zale” bezala 49 ageri gara.

“Errusiar zaleen” artean gaudenok sentsibiltate askotariko jendea gara: Ukrainako krisiari buruz muturreko jarrera desberdinak dituzten pertsonak daude, gehi mota guztietako grisak. OSk darabilen agenda erradikalaren erakusle da: nire posizioak defendatzen ez badituzte, nire etsaiak dira. Eta sinets iezadazue ez dela gustuko platera OSren etsaia izatea unibertsitatean, argitalpenak eta karrera akademikoa egin ahal izateko baliabide asko kontrolatzen dituzte, bereziki gizarte zientzietan, horiek gabe bidea urratzea zailagoa da, baina batez ere, horiek zure kontrako boikotean aktibatzen badira bizitza profesionala arriskuan izan dezakezu. Espainiako hedabide gehienek ondo dakite hori, ez da kasualitatea afera honen inguruan egon den isiltasun mediatikoa, nahiz eta ikuspegi demokratikotik eta kazetaritza ikuspegitik datuak eskandalizatzeko modukoak izan. Gerra korrespontsal gisa lan egiten duten kazetariak zein segurtasun gradurekin bueltatuko dira Ukrainara lan egitera?

George Soros “demokrazian” dirua duenak politika egiten du, lobby baten antzera presionatuz etxean eta atzerrian. Magnatea Hillary Clintonen finantzazio iturri nagusia da. Ulertzekoa da, Wikileaks-ek filtratu duen artxibobatean jakin berri dugu Hillary Clintoni (estatu idazkaria zenean, kanpo harremanetarako ministroa) e-mail bat bidali ziola 2011n Albaniak bizi zuen krisi politikoa kudeatzeko argibideak ematen. Horrela da *Soroskrazia*, noizean behin Coca-Cola eta Pepsi artean bozkatzen uzten gaituzte, baina agindu betikoek egiten dute. ■

Errugabeak



Rosa Maria
Martin Sabaris
EHU-KO IRAKASLEA

Kezkatuta omen dabilta kazetariak errugabetasun-presuntzioarekin. Garai batean atxilotak eta sarekadak eguneroko ogia zirenean, kazetariok ez genuen kezka handirik izan irudiak muntatzeko orduan. Aitzitik, epaitegiak informaziorik apenas ez zegoen garaian, telebistak erakusten zituen mila atxilotak bakoitzeko, hamar epairen berri ematen zuen eta kaleratze bakoitzean beste hamaika atxilotzen zituzten. Atxilotuen aurpegiak argi eta garbi ikusten genituen; izen-abizenak oso-osorik idatzita. Betiko giltzapean, betiko errudun bailiran.

Orduan, zigorra epaiketak gabe jasotzeak epaiketa justuaren eskubidea aldarrikatzera eramantzen gintuen, halabeharrez. Gaur, justizia instituzionalak eremu guztiak irentsi ditu. Dena bihurtu da epaigarri, epaiketarako lehengai errentagarria. Eta pendulu guztietan bezala, lanbide askotan lan-jardueraren arautzea eskatu da, segituan gehiegizko arautzea eta askatasun falta salatzeke. Salatua edo epaitua izateko ikarak kikilduta, sendagileek sendatzeari hartu diote beldurra; maistrek eta maisuek haurrak hezteari. Kazetariak kazetaritza egiteari.

Erantzukizun moralaren gainetik erantzukizun penala gailendu da. Hortik dator, segur aski, egun kazetariak errugabetasun-presuntzioarekin duten kezka ia obsesiboa. Hedabide bateko bekadunei hala esan zien eskarmentu handiko erredaktore batek: “Zuek ez esan inoiz hau edo hori gertatu

denik. Ipin dena beste baten ahoan, esan honek edo hark hau edo bestea gertatu dela esan dutela”. Informazioan iturriak aitortu beharra txarto ulertzen zuen kazetari hark. Kazetaritzak lekukotza eta norbere garaiarekiko konpromisoa eskatzen duela ahaztu zitzaion kazetariari. Berbakariaren kazetaritza: Urliak esan du, Sandiak gaineratu du, Berendiak erantzun dio...

Egin... inork ez du ezer egin. “Ni ez naiz izan”, “nik ez dut egin”, “nik ez dakit”, “nik ez dut ezer ikusi”. Kontua ez da sorgin-ehizan ibiltzea, baina bakoitzak bere bastoia eraman behar du. Eskubide ezberdinek elkarrekin talka egiten dutenean (intimitatea, pribatizazio, izen ona, errugabetasun-presuntzioa, informazio garbena ...), betebeharre so egiteko unea heldu da. Ala betebeharre ez dute talka egiten? Jakina da hedabideek epaiketa paraleloak egin izan dituztena, kondena mediatikoak errazak direna.

Hauteskundeek erakarri berri duten ziurgabetasun agertokiaren errua norena da? Hautesleena, hautagaiena, sistemarena? Norena Italiako lurrikararen errua? Sismologoena, politikoena, eraikitzaileena? Eraso bat ustezkoa bada, ustezkoa da lurrikara? Balizkoak hauteskundeak? Kazetaritzan errugabetasun-presuntzioak dena “ustezko” eta “balizko” bihurtzen badu, usteak erdi ustel direla gogoratzeko momentua iritsi da. Eta kazetaritzari kazetari sena, konpromisoa eta zintzotasuna. ■

Hondartzan ikusiak (eta entzunak)



Edu Zelaieta
IDAZLEA

ñaki Anasagastik (adin batetik gorako gizonentzat) famatu zuen ilazo-estiloa egiazki irrigarri suertatzeko arrisku bizia ekartzen ahal du itsasoaren brisak.

– Aberatsa da harea beroaren gaineko biluzien eta gordeen errepertorioa: gorputza besteen aurrean hotza pasatzearaino agertzen dutenak; bainujantzia zilborraren pareraino jantzen duten gizonak, gorde ezineko txitxiak gorde nahian; eguzki galdatan ez erretzeko nahiz hotzak ez egoteko (bikotekidearen) kamiseta lasairen bat erabiltzen duten emakumeak; topless kanonikoa errespetatzen ez duen (adin batetik gorako) emakumearen jo-

kaera arbuiatzen duten (adin batetik gorako) emakumeak...

– Indar betean segitzen du mehatxuaren pedagogiak gaurko guraso askoren artean: “Ez bazara txintxo portatzen etxera joango gara, eta harearekin jostatu gabe eta itsasoan sartu gabe geldituko zara”. Esan beharrik ez dago: ikusi-entzundako mehatxuak ez dira bete, haurraren portaera gorabehera.

– Eguzkiak ageriki gehien gorritzen dituen giza larruak urte osoan gutxien epeltzen dituenak izaten dira.

– Egunero bizi gaituen hipokrisia mailak apalagoa dirudi hondartza nudistetan. Hala ote? ■

Esaten direnak eta esan-gabeak

Adibide batek “gizonezko batzuk emakumezko asko baino berri-tsuagoak dira”, dio hiztegian, hitzei itsatsita doazen estereotipoak agerian utziz.

Estereotipoetan beti dago zerbait egiatik. Horregatik, posible da emakumeoi parte handiagoa egokitu izana eguneroko bizitzaren soinu-bandan. Eta baliteke nagusi izaten segitzen duen sexuen araberrako rol-banaketan androei esleitu izana, hein handiagoan, hizkuntzaren funtzio fatikoa, komunikazio-zubiak eta bideak zabalik jarraitzen direla bermatzea xede duen hori. Eginkizun pragmatikoa eta funtsezkoa, dudarik gabe –pertsonek zaintza edo gizarte-balioen iraupena bezala–, baina emakumeok funtzio erreferentzialaren muina den gizarte-diskurtso nagusitik urruntzen gaituena: emakume askori aditu diet kezu gizonen beren hitzak kontuan hartzen ez dituztelako, eta horri buruzko eztabaidetan gizonen beti esaten dute emakumeen hitz-jario etengabeak bultzatzen dituela haien hitzei kasu ez egitera!

Emakumeen aurkako indarkeria (tratu txarrak, eraso sexistak...) gizarte-diskurtso nagusiaren parte bihurtu da (hain da agerikoa biolentzia hori, non ezinezkoa baita ja itsuarena egitea), eta



Inma Errea

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

@inmaerrea

Diskurtsoak motz gelditzen dira. Maiz, hitz hanpatsuak astintzen dituzte, ezer esan gabe genero-indarkeria ahalbidetzen duen substratuaz

indarkeria horren arbuioa nahitaezko osagaia da, zorionez, gehienetan gizon diren ordezkari politikoen hitzetan. Eskertzekoa da hori, baita azkenotan eraso sexistei aurre egiteko erakunde askok hartutako jarrera komunikatibo irmo eta argia ere –erasoak gertatu ahal haien berri ematea, adibidez, balan-

tzeetako datu estatistiko huts bihurtzen utzi gabe–.

Hargatik, diskurtsoak motz gelditzen dira. Maiz, hitz hanpatsuak astintzen dituzte (“legearen pisua” edo “gizartearen arbuioa” kasu), ezer esan gabe genero-indarkeria ahalbidetzen duen substratuaz (horretaz, feministak baino ez dira mintzatzen, eta diskurtso nagusitik baztertzen zaie ia beti). Ez dira aipatzen emakumeoi emakume garen aldetik hainbat gizonen gizon-rola baliatuz egiten dizkiguten gauza lotsagarriak. Andre gehienok gertaera bat baino gehiago daukagu kontatzeko: hitz batzuk izan daitezke, begirada bat edo, uste baino sarriago, eraso fisikoa. Lotsaturik, isilpean gordetzen ditugu halakoak, eta hamarkadak igaro daitezke ezer esaten ausartu arte. Oharkabean pasatzen diren gertaera “arinak” dira, legearen pisuak edo gizartearen arbuioak zigortzen ez dituztenak, eta agenda politikoetan edo diskurtsoetan tokirik ez daukatenak.

Andreok hasi behar dugu halakoak azaleratzen, jendaurrean kontatzen. Eredu izan daiteke Miren Agur Meaberen *Galtzerdi zuriak* kontakizuna (*Berria*, 2016-08-14). Hitz hanpatsu askok baino hobe islatzen ditu emakume askok eta askok bizitakoak. ■

Memoria gara izan zaitez babesle

EUSKAL memoria

943 244 584 - 688 693 776

www.euskalmemoria.eus

MARCOS

okindegia

Benetako aitzinako ogia

© 943 450 966

Ubarburu pasealekua, 113

Astigarraga (Gipuzkoa)

MUGARIK GABE

Giza Garapen Jasangarria eta bidezkoa lortzeko lankidetzarako gobernu kanpoko erakundea

Herri-Onurako Elkartea

Joan da uda

Sindikatu batek seriocki landuko al du urteko lanaldiaren berrantolaketa, dozena aste lan eta gainerakoa opor? Etxera sarturik, burbuila jabalgarrria luzatzekotan, terrazan haltzen itzalean jarririk nengoela, haize firfirak inarrosi milaka hostoen estroboskopioak izpiak niganaino zilarrezko uharrean jautsarazten zituela, lehen hanka sartze gaitza: berriz konektatu nintzen. Denerata: e-mail, sare sozial, agerkari... Errealitate bihozgabeak hor zirauen, lehen okasioan lepora jauzi egiteko prest. Zeren eta trankilki beltzatzen geundela, beste batzuek segitzen baitzuten jo ta su, ezin geldituz tontakeria egiten, uda ala negu frenesia berarekin baitarraite. Eiki ez genuen zola joa, udak beste behin bazekarren perla: burkinia.

Artetik errateko, istorio horri esker, burkiniaren nozioa bera ezagutu eta orain izena eman diezaioket senarrak itsasoratzeko daraman janzkerari: azal zuridun orok bezala, paddle egitera baitoa kaskotik behera belaunetaraino estalirik eta geratzen den zatia krema gizenek aserik. Hori, burkini bat da, komunzki. Bizkitartean gure gizonari nehor ez zaio egundaino kexatu: gizona baita, egin dezake nahi duena. Nahi duena eta bi, hondartzetan gaindi urtero denen gisa berean, beste sasoieta burutik pasako ez litzaiokeena barne: ibil daiteke burkiniz edo ipurdi mazalak airean string txiki batekin, aritu daiteke plaian errugbian #ments etiketatua izan gabe, pokemon ihizian ibil daiteke #inutil gisa kontsideratua izan gabe, gizon ausartenek irakur dezakete liburu bat, igual soziologiaz, edo josta daitezke haurrekin behingoz, bata ala besteak ontsa egiten baitute. Bitxiki, gureari nehor ez dio galdegin ea burkiniz doanez askatasunaren izenean, katarsiarengatik, ala erantzunez orden sozial jakinaren arauai, ez, ez. Tira, nehor ez dio fitsik galdetu: gizon europarrek nahi duten bezala ibil-



Bea Salaberri

EUSKARA IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

tzeko dretxoa baitute, sasi borroka eta tirria guztien kontzentrazio plaza den hondartzan barne, emazteek ez bezala. Funtsean, erantzun etsigarria kausituko zuten: gureari ez diolako erlijioak agintzen, ez politikak, ez etikak, ez estetikak, dermatologoak baizik.

Serioski, polemikak sortzeko tirria ezin aseak, oraindik ere lortu du denen atenzioa desbideratzea, iritzi bataila antzuetan igeri, nor bere irakurketan. Bide batez, zein frantses kezkatu da Meuse-ko oihan batean abiatu obrez, CIGEO proiektuaren karietara, laster hor lurperatzeko hondakin nuklearrak? Bistan dena, nehor, okupatuegiak baitziren demostrazioak egiten, pseudo-feminismo mozorroturiko arrazismo post-modernoari emanik, alegiaz emazteen askatasunaz kezkatutik eta askatasunaren alde, aireratuz kezka dutela bat-batean munduaren bestaldean vitriolaz erretzen diren emazte errebeldeez. Problema burkinia da, sekulan heldu gabe arazoaren muinari, gure arimen zikina, integrazio arazoa, Siriako desmasia, urteetako suntsiketa, jendea ahoz gora zeruari so dena galdurik, islamismo gogorrenarentzat ongailu paregabea, bumeran.

Hots, beste behin, demagogia, ogi bedekintua Daesh-entzat, zinezko arazoak mahai gainean ezarri ezinean. Egonen dira biharamunak, patetikoak eta erresuminaren adierazteko isiltasun minututan biltzekoak. Isiltasun minutuak. Besoak dilingo. Bandera hiruko-loreredunak inarrosiz, jakin gabe bandera norena den xuxen. Kontzientzia betearen modaren garaian, absentsia betean.

Mundu horretakoa ez dut nahi izan.

Ai, haltzei begira ametsetan itotzen egon banendi, tartetxo batez oraino, arren, ene bakardadearen euforia laburrean, denborak harrapatu aitzin, negura lerrarazi nahi ninduketen sirenen kantari gor. ■

ERREFERENDUM LOTESLEA DEIKA DA **KATALUNIAKO ERREPUBLIKAREN BIDE ORRIAN**

Zertan da independentzia prozesua Diadaren bezperan? Urduritasuna eta ilusioa barreiatzen ari dira Kataluniako mugimendu soberanistan. Azken urteetako Diadetan independentistek sekulako indar erakustaldiak egin dituzte: errepikatuko ote dira balentria haiek? Zalantzak handiak dira, baina indarrak ere ez da falta.



Xabier Letona
@xletona

Azken hilabeteetan duda ugari metatu da independentzia prozesuari buruz. Arrazoi anitz dira horretarako, baina funtsean Junts Pel Sí eta CUPen arteko desadostasunak daude. Horren erakusle dira Generalitatearen aurtengo aurrekontuak, indar biak ez dira ados jarri eta, horren ondorioz, Carles Puigdemont presidenteak konfiantza mozioa deitu du Legebiltzarrean irailaren 28rako. Unea ez da txantxetako: gainditu ezean, CUPek sostengatzen ez badu, Legebiltzarra desegin eta hauteskun-

de berriak deituko lirateke. Une honetan independentismoak ez du halakorik gura. "Procés"aren porrota litzateke.

Oraindik ere Artur Masen inbestidura saioko liskarrak gogoan direnean, CUPek sekulakoak entzun behar izan ditu Junts Pel Síko lerroetatik. Barne tentsioak ere handiak izan dira kupe-roen artean, zatiketa hots eta guzti. Orain konfiantza mozioa ondo prestatzea dagokiela azpimarratzen dute alde bietan: CUPek 2017ko aurrekontuak eta RUI (Aldebakarreko Independentzia



Erreferenduma) jarri ditu mahai gainean; Junts Pel Sík legealdia amaitzeko segurtasuna.

Funtsean, konfiantza eza da arazo nagusietakoa. Berez, oraingo gobernua 18 hilabete irauteko hautatu zen. Espainiako Estatuarekiko deskonexioa prestatzea litzateke bere zeregin nagusia, alde bakarreko independentzia aldarrikatzea eta Legebiltzarra desegitea hauteskunde berriak egiteko. Legebiltzar berriak Kataluniako Errepublikaren konstituzioa idatzi beharko luke eta on-



Via Catalana egin zeneko irudi bat; oso Diada arrakastatsuak egin dira azken urteetan eta oraingoan bada beldurra hainbeste jende biltzeko gaitasunaz.

doren hau erreferendumera eramango litzateke.

Konfiantza ez da arazo bakarra, aldiz, bada oinarritzkoagorik: 2015eko hauteskundeen emaitzak. Independentismoak gehiengo argia lortu zuen Legebiltzarrean, baina botoen ikuspegitik ez zuen emandako botoen %50 gainditu. CUPEk hauteskunde biharamunean adierazi zuen horrek ez zuela independentzia aldarrikatzeko zilegitasun nahikorik ematen. Egungo prozesuaren alde ahulena da hori eta horregatik plazaratu

da erreferendum berriaren ideia; hau da, behar dela tresna bat katalanek benetan zer nahi duten jakiteko.

RUI, erreferendum loteslea

CUPEk eta beste sektore batzuek zailtza handiak dituzte Generalitatearen borondateaz, batez ere Espainiako Estatuarekiko apurketaren uneaz, eta beldur dira prozesua bidean urtzeaz. Hori ikusita, CUPEk aldebakarreko erreferendum loteslea jarri du mahaiaren gainean, eta apurka, gero eta onarpen

» Apurtu behar bada, beraz, hobe apurtzea “independentzia bai edo ez” galdera demokratikoarekin, “Konstituzio hau bai edo ez” galderarekin baino

handiagoa izaten ari da mugimendu independentista osoan.

Zein da jokaldi berriaren muina? Une-
ren batean Estatuarekiko apurketa egin
behar dela, tresna RUI izan edo aldeba-
karreko independentzia aldarrikapena
(DIU ospetsua) izan, oraingo prozesuan
aurreikusten den gisan. Apurtu behar
bada, beraz, hobe apurtzea “indep-
endentzia bai edo ez” galdera demokra-
tikoarekin, “Konstituzio hau bai edo
ez” galderarekin baino. Denek ulertuko
dute hobeto galdera, zeresanik ez na-
zioartean, lehenengo aukera bigarrena
baino. Hori litzateke, funtsean, RUIren
aldeko arrazoi nagusietakoa.

Gaur gaurkoz, CUP, ANC, ERC eta Rea-
grupement, esaterako, ados dira RUI-
rekin. Generalitatean eta PDCn (Kata-
luniako Alderdi Demokratikoa, Artur
Masen CDC ohia) aztertzeko prest dau-
de, eta proposamena gero eta indar han-
diagoa ari da hartzen. Hori bai, Junts
pel Síren ustez, aurrera eramatekotan,
egungo prozesuari gehitzeko atala li-
tzateke eta ez berau zalantzan jartzeko
tresna.

» 1980an eta 1995ean
Quebecen egindako
erreferendumetan ez
zen adostasunik egon eta
Gobernu Federalak lege-
z kanpokotzat jo zituen

RUIren aurka diren independentisten
ustez, arriskuak handiak lirateke: lehen-
bizi Espainiako legediarekiko talka; bi-
garrena, 2014ko azaroko kontsultaren
errepikapena bihurtzea; eta hirugarre-
na, aurkakoei parte ez hartzeko arris-
kua. Azken hau ez da txantxetakoa eta
PP, Ciudadans eta PSOEren iritziz argiaz
gain, En Comú-koek adierazi dute jada
RUIren aurkako jarrera.

Xavier Domenech bozeramaileak joan
den astean Kongresuko inbestidura



Goiko argazkian, En Comúko Ada Colau eta Xavier Domenech mitin batean; Diadan egongo dela adierazi du Colau Bartzelonako alkateak. Carles Puigdemont presidenteak (beheko argazkian) deitutako konfiantza mozioa hilaren 28an aztertuko du Kataluniako Legebiltzarak.

saioan argi utzi zuen gisan, haiek errefe-
rendum adostuaren alde dira. Katalunia-
ko ezkerrearen bi arimen arteko tirabirak
latzak dira gai honen inguruan. CUPen
aburuz, RUI egiteko data ona litzateke
2017ko ekaina, besteak beste, egungo
Generalitateak hor beteko lukeelako 18
hilabeteko epea eta desegin beharko li-
tzatekeelako. Aldekoen arten, alabaina,
ez dago batere garbi noiz komeniko li-
tzatekeen egitea erreferendum hau, hori
bailitzateke egiazko apurketaren unea.

Quebecoko erreferendum aldebakarrekoak

Quebec eta Eskoziako adibideak hor
dira etengabe, biak erreferendum ados-
tuaren aldeko eredu gisa plazaratuak.
Errealitatean, ordea, akordioaren ikus-
pegitik ez dira parekoak. Londres eta
Edinburgoren arteko akordioa izan zen
2015eko erreferenduma egiteko, Kana-
dako Gobernu Federala eta Quebec-
koaren artean ez. 1980an eta 1995ean
Quebecen egindako erreferendumetan

KONSTITUZIO AUZITEGIARI EGINDAKO DESAFIORIK HANDIENA

Uztailaren amaieran Espainiako Konstituzio Auzitegiak atzeratu egin zuen Kataluniako Legebiltzarrarekiko talka, ustez irailaren 11ko Diadaren ondorengorako utziz. 2015eko azaroaren 9an Legebiltzarrak onartutako deskonexioaren hasieran oinarritzen da guztia. Espainiako Konstituzio Auzitegiak legez kanpokotzat jo zuen onartutako adierazpena. Kataluniako Legebiltzarrak, aldiz, Prozesu Konstituziogilearen azterketa batzordea abiarazi zuen, auzitegiari muzin eginez.

Iragan uztailaren 27an aurkeztu zituen bere ondorioak batzorde konstituziogileak eta Parlamentuak onartu egin zuen Junts Pel Sí eta CUPeko botoekin. Konstituzio Auzitegiak astebete lehenago jakinarazi zion Legebiltzarrari ez onartzeko batzordearen ondorioak, eta hala egiten bazuen zigorrak egongo zirela. Konstituzio Auzitegiari Legebiltzarrak orain arte egindako desobedientziarik esanguratsuena litzateke uztailaren amaierako hau.

Kataluniako Errepublikaren oinarriak

Duela urtebete PPren Gobernuak bultzatutako Konstituzio Auzitegiaren erreformarekin, auzitegi honek zuzenean zigor dezake Kataluniako Legebiltzarra, baina oraingoz ez du horrelakorik erabaki. Legebiltzarreko idazkaria eta Mahaiko kideei ohartarazpenak egin dizkie, eta ez da hortik harago joan. Legebiltzarraren desafioa ikusita, abuztuaren 1ean bildu zen urgentziaz Konstituzio Auzitegia, baina ez zuen inongo zigor neurririk hartu. Gertatutakoa jaso zuen eta Diada ondorengoan berriz biltzea erabaki zuen, egun esanguratsuaren aurretik Kataluniako independentismoarekiko talka saihestu guran.



Carme Forcadell Parlamenteko lehendakaria kargugabetzea eskatu du Espainiako fiskaltzak.

Espainiako fiskaltzak, aldiz, Konstituzio Auzitegiari eskatu dio jada ekin diezaioala bide penaletik Carme Forcadell Legebiltzarreko lehendakariaren kargugabetzerako. Hala gertatuko balitz, independentistek uste dute Forcadellek normal jarraitu behar duela lanean, kargugabetzeari muzin eginez. Begi bistakoa da, alabaina, hori zilegitasun borroka hastea litzatekeela, besteak beste Espainiako legediaren arabera, Forcadellek sinatutako guztia balio gabekoa litzatekeelako.

Eta zer da zehatz mehatz Konstituzio Auzitegiak bertan behera utzi duena? Legebiltzarrak onartutakoaren arabera, independentzia prozesu honek hiru fase izango ditu. Lehena herritarrek parte hartzeko prozesua izango da eta Forum Sozial Konstituziogileak gidatuko du; forum hau alderdiek eta gizarte mugimenduek osatuko dute. Bigarrenak Espainiako Estatuarekiko deskonexioa ekarriko du, hauteskunde konstituziogileak egingo dira eta ateratzen den parlamentuak Kataluniako Errepublikako Konstituzioa idatziko du. Hirugarren fasean, erreferendum bidez Kataluniako gizarteak Konstituzio berria bozkatuko du.

ez zen adostasunik egon eta Gobernu Federalak legez kanpokotzat jo zituen. Baita Kanadako Auzitegi Gorenak ere, baina ez zituen debekatu, horrek erreferenduma egiteak baino kalte handiagoak ekar zitzakeelako.

Baina 1995eko erreferendumaren aurka herritar talde batek aurkeztutako helegitea aztertu egin zuen Kanadako Auzitegi Gorenak, eta hortik atera zuen 1998ko ebazpen ospetsua: Quebeceko Gobernuak ezin zuen aldebakarre-



Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia:

**JARRI PUBLIZITATEA
HEMEN**



ARGIA

943 371545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

ko independentzia aldarrikatu, baina erreferendumean independentziaren aldekoek irabaziz gero, Gobernu Federala behartua legoke Quebecekoarekin negoziatzera. Alde biek ontzat jo zuten erabakia eta gaur egun garrantzi handia du munduko autodeterminazio prozesuetan. Baina ez zen Gobernu Federala izan helegitea jarri zuena, eta nahiko aparte geratu zen erreferendumaren legezko auziaren afera osoan, ez behintzat lehen lerroan, Madrilgo PPren Gobernu Katalunian ari den gisan.

Trantsizio Juridikorako Legea

Uztailaren amaieran Kataluniako Legebiltzarrak onartutakoaren arabera, independentzia prozesuaren une batean Espainiako legediaren deskonexioa egongo da; hori da hain zuzen Trantsizio Juridikorako Legeak aurreikusi beharko duena, une batetik bestera pasatzerakoan legezko hutsune juridikorik egon ez dadin. Oinarrizko hiru esparru arautuko dituzten hiru legeekin egingo da trantsizio hau: prozesu konstituziogilea, gizarte segurantzia eta Kataluniako Ogasuna. Berez, prozesua gidatzen dutenen ustez, lege hauen onarpena izango da Espainiako Estatuaren apurketaren unea, hau da, aldebakarreko independentzia aldarrikapena. Une horretatik aurrera, Kataluniako Legebiltzarra eta Generalitateak Kataluniako legedia bakarrik obedituko lukete. Askoren ustez, horixe litzateke RUI egiteko une egokia, lege hauek onartu eta berehalakoan.

Eta zer dio En Comú?

Ada Colauk gidatzen duen mugimendu indartsuak Generalitatearen egungo prozesuaren aurkako jarrera hartu du ofizialki, baina ez barne zalantza eta tentsiorik gabe. Egiazki, gauza bat da Catalunya Sí Que es Poteko parlamentariak pentsa dezaketena eta beste bat da En Comú boto emaleek buruan dutena. Inork ez du zalantzan jartzen oinarri horietan badela jende independentista ugari, eta Bartzelonako alkatetzarako Ada Colau bozkatuko duela, baina erreferendum batean independentziaren alde egingo lukeela. Zenbat dira, baina? Hori da behingoz, independentismoak kontatu nahi duena.

Kontraesanak eta beldurrak ez dira gutxi En Comúkoen artean. Ez dira ados Junts Pel Sí eta CUPEko bide orriarekin,



DIADA 2016: KATALUNIako ERREPUBLIKAREN TAUPADAK

ANTOLATZAILEA

ANC eta Òmnium Cultural izango dira aurtien ere Irailaren Hamaikaren antolatzaileak.

DESZENTRALIZATUA

Bost manifestazio egingo dira Bartzelona, Berga, Lleida, Salt eta Tarragonan. Errepublika berriaren izaera pentsatuz, herri edo hiri hauetako bakoitzari ezaugarri berezi bat emango zaio.

LELOA

A Punt. Kataluniako Errepublika lortzeko delat adierazi nahi dute, Kataluniako Legebiltzarra eta Generalitatea sostengatu behar direla eta Kataluniako gizarteak indarra bildu behar duela independentziaren azken txanpa arrakastaz amaitzeko. Aurreko urteetako indarra ikusita, bada beldurrik herritarren erantzunarekiko, askoren ustez herritarrak aurreko urteetan baino nekatuago daudelako egungo egoerarekin.

PARTEHARTZEA

Mobilizazioa 44 zatitan banatu dute antolatzaileek eta herritarrak horietako zeinetan parte hartuko duten zehatzu behar dute.

BIHOTZA

Une gorena izango da partaide bakoitzak biribil horia altxatzen duenean, eta sinbolo honekin adierazi nahi da "Kataluniako Errepublikaren bihotz taupada". Manifestazio bakoitzak bere une gorena izango du eta une zehatz batean bost guneez aldi berean altxatuko dute biribila, edo bihotza.

baina Ada Colau eta En Comú aurtengo Diadan izango direla iragarri dute, nahiz eta hau ANCk eta Òmniumek antolatu duten, argi adieraziz Legebiltzarraren eta Gobernuaren bide orria sostengatzen dutela.

En Comúren barruan ere ez dago garbi nola jokatu, baina oro har, ados dira prozesu soberanista indartzearen ideiarekin, hori bai, beste bide orri batekin. Bartzelonako Udalean Ada Colaren bigarrena den Gerardo Pisarellok uda honetan idatzitako artikulua batean, ezkerrekoen prozesu soberanista defendatzen zuen. Hau da, bere ustez, azken hauteskundeetako emaitzekin soberanismoak ezkerreara egin du, eta hori prozesuan islatu beharko litzateke. Nola baina?

Lotura Kataluniako Errepublika litzateke. Pisarelloren ustez ezin da zain egon Espainiak erreferenduma egitea onartu arte. Zer egin, beraz? Legebiltzar hau desegin, hauteskunde berriak deitu eta ezkerreko soberanismo indartuak bideratzea Kataluniako Errepublikaren sorrera, besteak beste, ERC, En Comú eta CUPEko indarren bidez. Hemen ere Legebiltzar berria konstituziogilea litzateke eta behin konstituzioa idatzita, erreferenduma egingo litzateke. En Comú, orduan, Espainiako gainerako herriei estatu konfederalaren aldeko hautua egingo luke. Artikuluan, Pisarellok "prozesu konstituziogile ez subordinatua" deitzen zion honi guztuari.

Vigent Partal Vilawebeko zuzendari eta independentista ezagunak gogor kritikatu zuen proposamena titulu hau zeraman abuztuko editorial batean: "Burujabeak baina ez independenteak, edo nola asma daitekeen zentzu gabeko debate bat".

Buruarenak baino bihotzarenak dira Diada bezperako egun hauek. Independentismoa sendo dagoela erakutsiko du ostera ere Irailaren Hamaikak, baina Junts Pel Sí eta CUPEk gauza asko adostu beharko dute bide orriaz eta gobernuaren jardueraz, batez ere irailaren 28ko konfiantza mozioaren aurretik. Inoizko Legebiltzar eta gobernu independentistekin, inoizko erabaki gaitzenak hartzea dagokio mugimendu independentistari. Zein norabidetan ezin da esan, baina 2017ko Diadan Kataluniako balizko Errepublikaren egoera oso beselakoa izango da. ■

HYBRID RYTHM & DANCE

OREKA TX

MOTOKO HYRAYAMA

EMI TOKO

Victoria Eugenia

Urriak 21 - 23

21, 22: 20:00

23: 19:30



Urriak 05

DONOSTIA - PILSEN, KULTUREN ARTEKO ELKARGUNEA

Antzoki Zaharra
20:00



Urriak 15-16

DANCE ON: THOSE SPECKS OF DUST & 7 DIALOGUES

JONE SAN MARTIN
(Sortzailea)

Victoria Eugenia
20:00



Urriak 24

150TH BIRTHDAY OF ERIK SATIE

FUMIO YASUDA,
JOACHIM BADENHORST,
ERNST REIJSEGER

Victoria Eugenia Club
20:00

BAZKIDEAK

-%10



SARRERAK

LEIHATILETAN:

Victoria Eugenia: 943 48 18 18

Antzoki Zaharra: 943 48 19 70

INTERNET:

DONOSTIAKULTURA.COM/SARRERAK



Donostia Urdia
Ayuntamiento de San Sebastián

Palma-landaketak Kongon

FERONIA: ETEKINEN APURRAK ERE EZ BERTAKOEN GARAPENERAKO

Europa eta Ipar Amerikako hainbat banku eta garapen-agentziaren laguntzarekin, Feronia sozietateak oihan eremu eskergak bereganatu ditu Kongoko Errepublika Demokratikoko hainbat probintzian, palma-olioaren urre gorria atera eta erregai bihurtzeko. Kolonia-garaiko sail zaharren kontzesio ugari eskuratu eta antzinako eremuak, neurri handian erdi utzita zeudenak, berriz atxikitzen ari da, estatuko goi ordezkarien babesarekin baina legeari eta bertan bizi diren herrien eskubideei jaramonik egin gabe.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Oskar Epelde
@oskarteleSUR

Yangambirako bidean, Kisanganitik abiatuta, pixka bat beherago Linzirekin bat egin eta urak Kongora jaurtitzen dituen Tshopo ibaia zeharkatzen da piraguaz; Yangambitik 30 kilometrora modu berean zeharkatuz Kongo ibaia, Isangira iritsiko zara. Isangitik, oihaneko “Bide Handian” barna, herriz herri, 100 bat kilometro dira Mositera iristeko, Bolesa eskualdean. Bidea motoz egin daiteke baina bertakoak bizikletaz edo oinez ibiltzen dira. Baliabide natural oparoak dituzte inguruan baina truke ekonomia hutsean bizi dira. Lur eta oihan eremu erraldoiak ustiatu dira inguru honetan 100 urte baino gehiagoz, eta kontzesioen hartzaileek egundoko mozkinak irabazi dituzte, baina horrek ez die bertakoei ezertxo ere ekarri.

Bolesan, Tshopo probintzia berriko Yahuma barrutian, exorzismo moduko bat egin diote PHC-Feroniari. Egoitza Kanadan duen eta Kongon lurra bereganatzen duen multinazionalaren alde ez-kutuak agerian geratu dira. Haren kezka bakarra landaketa-eremuak ezarri eta palma-olioaren etorkizuneko ekoizpe-

na finkatu ahal izateko lursail berriak neurtu eta mugatzea dela argi geratu da.

Betiko metodo berdinak

Joan den uztailaren bukaeran, sozietateak diputatu talde bat ekarri zuen Mositera, bizilagunen eskaerak aintzatu hartu eta protokolo baten sinadura antzetzeko aitzakiarekin; inguruko herri-tarrak tropelean iritsi ziren ekitaldira, baina operazioa salatu eta galarazteko.

Lifafu Ongandok, Yaoselo herriko biztanle gailenen izenean, Bambembe Ituli diputatuari leporatu zion astebete lehenago, Feroniaren ordezkari modura, diru beltzez erosi nahi izatea. Hiru diputatu, lurralde administratzaileak, tokiko agintariak eta ehunka herritar zeuden presente. Inork ez zuen erantzun.

“Feroniak ez du inoiz bertakoekin negoziatu”, dio Lifafuk hilabete geroago. Bambembe diputatuak Lifafuren beraren eta Augustin Bofaka irakaslearen aurkako salaketa jarri berri du. Uztailaren 27 hartan diputatuek Mositetik Lokutura ihesi egin behar izan zutela eta Yaoselo eta Yakote herrietan, Lifafuk eta Bofakak akuilatuta, jendeak eraso egin ziela dio Bambembek.

Salaketa funtsik gabekoa delakoan, Lifafuk eta Bofakak ez dute ihes egite-

ko asmorik. Konpainiaren jokoa zertan datzan salatu dute: herritarren eskaerak negoziatu eta adosteko aitzakiaz diputatuak ekartzen dituzte, eta horiek enpresaren alde egiten dute. Bertako komunitateei proposamen zerrenda bat aurkezten diote, sinatzeko. “Iruzur egiten digute” dio Lifafuk, “urte asko dira estatuak legeak egin zituenek geroztik, baina estatuaren ordezkariak tratuan dihardute sozietatearen alde eta herri-tarren kontra”.

“Feroniak ez du inoiz ezer egin bertokoon garapenaren alde”

Bofakak ordezkatzeko duen elkarte, CADAP, Bolesako biztanleen hezkuntza eta osasun maila hobetzeko helburuarekin sortu zen. Oinarritzko jardueren ekoizpena bizkortu eta komertzializazioa antolatzen saiatzen dira. Dena egiteke dagoela esan liteke, oihan tropikaletatik laborarien produktuak ateratzeko biderik ere aurkitzen ez dutelako, eta diru sarrerarik gabe bizi direlako belaunaldiz belaunaldi. 2013an, CADAPek akordioa sinatu zuen Bolesako pertsona gailen eta herritarrekin, haien izenean PHC-Feroniarekin negoziatzeko Kongoko oihan zuzenbide berriak ezartzen dituen klausula sozialez.



Ezkerrean, Bolesako herritar bat, Feroniak ordaindutako soldataren ziurtagiria erakusten. 30 dolar inguru jaso dezakete 26 eguneko lanaren truke. Eskuinean, Mositeko eskolaren egoera negargarria erakusten ari zaigu bertako bat. Irakasleek ez dute soldatarik jasotzen administrazioetik eta gurasoek emandakoari esker bizi dira. Hainbat hamarkadaz inguruko palma-olioaren etekinak eraman dituzte mendebaldeko konpainiek, baina eskualderako onurarik ez du ekarri horrek.

“Lehenik eta behin, Feronia, bertakoe-kin adostu gabe eta kontzesio titulurik gabe, palma eremuak zabaltzen saiatzen ari da” dio Bofakak; “bigarrenik, ez dituzte aintzat hartzen ingurumen printzipioak, adibidez beldarren zuhaitzak, fruitua ematen dutenak eta ibaiaren er-tzetan daudenak ez suntsitzea, eta oiha-neko herritarren zelaia eta bizibideak ere txikitzen ditu. Hirugarrenik, 1911. urtetik, sozietatea Bolesan dagoenez ge-roztik, ez du inoiz ezer ere egin inguruko herritarren garapenaren alde. Yahuma-ko barrutiaren administrazioari ez dio zergarik ordaintzen sortzen duen kutsa-dura medeatzeko, ez die lan aukerarik ematen bertako gazteei, ezta laborariei ekoizle bihurtzeko laguntzarik ere”.

PHC-Feroniak palma-hazitegi bat eta egoitza txiki bat ditu Mositen –egoitza nagusia Lokutun dago-. Bide Han-dian zeharkatutako herriek ez bezala, Mositek merkatutxo bat eta bizpahiru boutique ditu, xaboia, linternak, gaile-tak edota sardina latak erosteko, baina gaeuz iluntasunean murgiltzen da. Piz-tzen diren lanpara bakarrak eguzkiaren energia gordetzeko bihurtzailuak dutene-nak dira.

Yahuma eskualdeko administratzaileak Mositen duen ordezkariak Feroniak eraikitako auzo batean dauka bulegoa, estatuaren beste hainbat ordezkariak be-zala –kanpotik etortzen diren bisitariei ere sozietateak eman ohi die ostatu-. Gatazkaren lekuko hutsa dela dio eta kolaboratzeko nahia dagoela azpima-

rratu du, azkeneko arazoa gaizki ulertze huts batek sortu zuela. Haren azpiko batek hitza hartu eta Bambembe dipu-tatuak jarritako salaketa “maskarada hutsa” dela gaineratu du. Diputatuak salatu du segurtasun indarren babes-a-ekin ihes egin behar izan zutela, “baina gezurra da”.

» Dena egiteke dago, Bolesako bizi baldintzak hobetzeko helburua duen CADAP elkartearen esanetan; laborariek oihanetik produktuak ateratzeko biderik ere ez dute

» **AUGUSTIN BOFAKA, CADAP:** “Feronia palma-eremuak zabaltzen saiatzen ari da bertakoe-kin adostu gabe, titulurik erakutsi gabe eta ingurumen printzipioak aintzat hartu gabe”

Bolesa, erresistentzia gun e bakarra

PHC-Feroniaren eremuak lau elkargota-ko lurrak hartzen ditu, baina erresisten-tzia Bolesan baino ez dago; konpainiak bertatik ateratzen du ekoizpenaren er-dia. Beste elkargoetan ez bezala, Bolesan enpresak ez du lortu oraindik landake-ta-eremuaren neurketa eta mugaketak egitea. Bertakoen arabera, ez dago lan-daketa noraino muga daitekeen zehaz-ten duen inolako dokumenturik, eta Feroniak hartu nahi duen lurraren or-dainei buruz negoziatzea eskatzen dute. 2007an Feroniak eremua bereganatu zuenean bertako komunitateek eskae-ra sorta bat osatu zuten, baina urteo-tan multinazionalarekin izan dituzten harreman-saioetan porrota besterik ez dute ezagutu, bata bestearen ondotik.

2013an, CADAP elkartearen lagun-tzaz legearen bideak erabiltzen ikasi ondoren, Bolesako eragileek auzitegi-ra eraman zuten Feronia, abusuak eta oihan-zuzenbidearen bortxaketak le-poratzuz. Eta ez hori bakarrik: aurreko hamarkadetan sozietatearen Guardia Industrialak, polizia nazionalaren la-guntzaz, hainbat arpilatze eta bost hil-keta egin zituela salatzen saiatu ziren, baina fiskalak ebatzi zuen salaketa fun-tsik gabea zela.

Mbete Lokwangolo, Bolesako buruza-gi tradizionalak, bere egiten ditu Fero-niaren aurkako errebindikazioak. Bere aita zenak, 1911n, zehazki finkatu ga-beko eremu baten erabilera gizon zu-riaren esku uztea onartu zuen; kolonia



Bolesa eskualdeko leku askotan hamar kilometroko sakonera izan dezaketen palma-eremu laukiak dira nagusi, bidearen alde bietara begiratuta.

garaia zen, eta desadostasuna agertze-ko aukerarik ere ez zuen izan. Ez kolo-nia garaian ezta gero ere, sozietateak ez dio herriari inolako onurarik ekarri, dio Lokwangolok, bere lastozko jauregi-en-

tzutegian eserita. Herritarren eskaera sortari erantzun ordez, palma-landake-ta indarrez ezartzen jarraitu nahi omen du Feroniak, geratzen diren oiha-eremu apurak harrapatuz. Ohiturazko zuzenbidearen babesarekin eremu horien jabetza dutenak aintzat hartzeko eska-tzen du buruzagiak.

30 dolar 26 eguneko lanaren truke

Mosite inguruan eta Lokuturako bidean, Yakoten, Yaoselon eta haratago, 6-10 kilometroko sakonera duten palma-eremu laukiak dira nagusi, alde bietara be-giratuta. “Konponbideak eskatzen ditu-gu”, dio Emuki Lifafu Yaoseloko buruak, “baina mehatxuak beste erantzunik ez dugu jasotzen”. Herriko eskolak ez du mahairik ez aulkirik, eta eliza katolikoa banbu eta lastozkoa da.

PHC-Feroniaren eremua hainbat azpi-sailetan zatituta dago, eta horietako ba-koitzean kolonia garaiko kanpamentuak daude, konpainiako langileak eta haien familiak bizitzeko. Yaoselotik Makaura-ko bidean, berriz, hamabi kilometroko palma-eremuaren barruan, adin guztie-tako ehunka lagun bizi dira argi-inda-rrik gabe eta denentzako ur iturri bakar batekin, belaunaldiz belaunaldi, biga-rren mailako hezkuntza aukerarik gabe. 26 eguneko lanaren truke 30.000 libera jasotzen dute, hau da, 30 dolar.

Feronia iritsi denetik, oinarritzko eli-kagaiak lantzeko lur eremu txikiak ere kentzen dizkiete. Hala gertatu zen iaz

Makaun. Bertakoekin inolako akordio-rik egiteke, konpainia mugarri berriak jartzen ahalegindu zen, banana eta ma-nioka landare eta oiha-nak kontuan har-tu gabe. CADAPEk eta herriko buruza-giek helegitea ipini zuten, eta horrek, 2013koak ez bezala, izan du eraginik. Fiskalak sozietateari bere titulua era-kusteko eskatu dio behintzat. Titulua erakutsi ordez, antzinako palmen arras-toak zeuden tokietara bakarrik hedatu zirela erantzun dio Feroniak fiskalari, baina gezurra dela begi-bistan utzi dute herritarrek.

Gurasoek emandako diruari esker bizi dira irakasleak

Uztailaren 27an diputatuek sinarazi nahi izan zuten protokoloan, herriak eskatutako proiektu batzuk gobernu zentralak edo probintzialak beteko zi-tuela agintzen zen. Bolesakoek eskatzen dute proiektu sozialak landaketa-ere-muak neurtu eta mugatu aurretik egin daitezela. Nazkatuta daude betegabe-ko promesez. Haurren eskola publikoa, Yaoselo eta Yakoterako bakarra, ikusi besterik ez dago. Irakasleek ez dute hez-kuntza administratibotik ez soldatarik ez diru-laguntzarik jasotzen. Elombe Kombi irakaslearen esanetan, haurren gurasoek ematen dieten diruari esker bizi dira.

Elombetar gazteago bat, irakaslea-ren anaia, 2013ko salaketan ageri den azken hildakoa da. Eremu bat zeharka-


INAKI BEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



Yaoselotik Makaurako bidean, hamabi kilometroko palma-eremu batean, ehunka pertsona bizi dira argi-indarrik gabe eta denentzako ur iturri bakar batekin.

tzen ari zela, ezer lapurtzeko asmorik gabe, Guardia Industrialak harrapatu eta ustez hil egin zuen, 2007an. Polizia nazionala ere tartean zebilela uste da. Herritarrek Mositera iritsi ziren protesta egiteko eta poliziaren komandanteak, burua galduta balego bezala, gaztearen zerraldoa tirokatu zuen denen aurrean. Komandante horrek Frank Bora du izena, eta Feronia iritsi baino lehenagotik da polizia, beste asko bezala. Betiko jokabideari eusten diote, baina orain konpainiaren mesederako.

“Feroniak ez du Bolesako bidezko ordezkariekin hitz egin nahi”

Augustin Bofakak argi utzi nahi du bertako komunitateak ez daudela multinazionalaren kontra. Eskatzen duten gauza bakarra legeak eta eskubideak

errespetatzea da. 105 urte alferrik galdu ondoren, zerbait egitea lurraldearen garapenerako. Kudeatzaileek banatzen dituzten diru apurrak poltsiko bakan batzuetara joan ez daitezten. Eskolak, osasun zentroak eta bideak hobetzea, eta euren berezko erakundeetarako etxeak egitea eskatzen dute, besteak beste.

Duela hamahiru urte onartutako baso-kodearen arabera, kontzesioa duen enpresak klausula soziala bete behar du, teoriarik behintzat. “Ez da bidezkoa sozietatea hainbeste urte han egon ondoren, eta etekin itzelak lortuta gainera, komunitateen alde ezer egin ez izana”, dio Bofakak, “eskubideak eta betebeharrak dituzte. Komunitatearen garapenerako antolaketaren ordezkariekin negoziatu ordez, diputatuak

» Bertakoen arabera, ez dago landaketa noraino muga daitekeen zehazten duen dokumenturik; horretaz negoziatu nahi dute konpainiarekin

» Feroniaren Guardia Industrialak arpilatzeak eta hilketak egin dituela salatzen saiatu dira, alferrik

ekarri eta funtsik gabeko salaketak egiten dituzte; Feroniak ez du Bolesako bidezko ordezkariekin hitz egin nahi, politikariak erabiltzen ditu, eskaintzen dioten zerbitzuagatik ordainduz”. Haatik, nabaria da politikarien eraginkortasun eza tokiko garapena sustatzeko. Adibide tristenetakoa duela hamar urte Mositen egindako Landa Garapenerako Goi Institutuaren hondamendi egoera da.

Gau batean Bora komandantea ikusi dugu merkatuan, mozkortuta, eta guri buruzko galderak egiten hasi denean hanka egin dugu badaezpada, baina bertan bizi direnek ez dute inora alde egiterik. Feroniari aurre egiten diote egunero eta gauero, euren eskaera zuzenak direlakoan, munduaren laguntza jasoko dutela espero. ■

Aisialdian balioetan hezteko ikastaroak Bizkaiko Urtxintxa Eskola

- Aisialdiko begiralea
- Aisialdiko zuzendaria
- Jendarte kultur dinamizatzailea
- Hezkidetzan aditua
- Feminismoan sakontzen
- Haurren parte-hartzean murgiltzen
- Aniztasun funtzionala aisialdian aditua
- Kulturarteko hezkuntzaren hastapenak

+IKASTARO LABURRAK

*Zure beharretara egokitutako
trebakuntza ere eskaintzen dugu!

**MATRIKULA
IRAILAREN 1ETIK 30ERA**

www.urtxintxaeskola.eus
urtxintxa@urtxintxaeskola.eus
94 432 04 45
Zabalbide 26, behe 48006 Bilbo.



Motxila bete kezka

Kanpo-azterketa berriak, aldaketak ikasgaietan, ingelesezko ordu gehiago, ebaluaketa irakasleei, mugimenduak goi-karguetan... Bero dator ikasturtea Hego Euskal Herrian, LOMCE, Heziberri, Ingelesez Ikasteko Programa edota D ereduaren zabalkuntza tarteko.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeek Madrilen egositako LOMCE ezetz, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko Heziberri plana jarraitzen dutela azpimarratu nahi izaten du Jaurlaritzak berak, eta egia da punturen batean Espainiako legea saihestea lortu duela –ikastetxearen kudeaketarako boterea zuzendariarengan kontzentratzen du LOMCEk eta Eskola Kontseiluaren eskumenak mantentzen ditu Heziberri–, baina oro har argi dute hezkuntza munduko sindikalistek: EAEn LOMCE aplikatzen da, Heziberri bere atal nagusietan dioelako oinarriko legedia aplikatuko dela –eta oinarriko legedia, gaur-gaurkoz, LOMCE da–, eta Heziberri onartu aurretik jada arautu zelako curriculum, LOMCE inarrean zela. Hala baieztatu digute solaskide izan ditugun Xabier Irastorza (ELA) eta Aitor Idigoras (Steilas).

Curriculum horren ikuspegi ekonomizista nabarmendu digute, *Ekintzailatza eta enpresa jardura* edota *Finantzak bizitzarako* ikasgaiak kasu. Azken horrek hautsak harrotu ditu, Kutxabank bankuak ematen baitu –“interes jakinak dituen erakunde pribatua”– eta aurreko ikasturtean 14-16 urte arteko 1.700 ikasle inguruk parte hartu bazuten, eskola gehiagotara zabalduko da aurrean. Orokorrean, iazko ildoari jarraituko zaio: matematikak, zientziak eta hizkuntzek dute lehentasuna orduan, alegia kanpo-azterketetan eta PISA-n ebaluatuko diren ikasgaiak. Bigarren mailako edo hautazko izatera igaro dira “merkatuak interesgarri ez direnak”. Azkenik, Filosofia, derrigorrezko izatetik aukerazko izatera degradatua. “Autonomian, gaitasun kritikoan eta autoezagutzan

aurrera joan nahi duen gizarte batek ezin du inola ere filosofia galdu –salatu du Agora filosofia irakasleen elkarteak–. Gaitasun zientifiko eta teknologikoak sustatzen dituen hezkuntza eredu ezarri nahi dute, eta sormen arloak eta kritikoak alboratu”. Argi du Irastorzak: “Jaurlaritzak esaten du teorian edozein ikasle edozein ikasgai egiteko aukera daukala, baina praktikan curriculum horiek ezinezkoak dira, hautazko guztiak aukeratzea ezinezkoa delako”.

Aurreko ikasturtean, esaterako, desagertu egin ziren *Herriartasuna* edota *Mundu Garaikidearen Zientziak* (unibertsitateaz, eboluzioaz...) eta garrantzia hartu du Erligioak. Hainbat ikastetxetan, “Erligioak gelak gainezka daude, batez besteko notarako balio duenez eta nota altua lortzea beste ikasgaietan baino errazagoa denez, ikasle askok hautatzen dutelako”, kontatu digu Idigoras.

4. DBHn ere, kanpo-proba

Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailako kanpo-azterketa polemikoak ezagunak zaizkigu. Administrazioak garrantzia kendu nahi izan die, adieraziz ebaluazio-diagnostikoak direla –alegia, ez dutela balio akademikorik– eta Espainiako Estatuak ez, Eusko Jaurlaritzak prestatzen dituela –Foru Erkidegoan, Nafarroako Gobernuak–. Hala ere, LOMCEren aginduak jarraitzen dituztela iritzita, azterketa hauei iaz planto egin zieten ikastetxe ugaritan. Datorren ikasturtean, beste bi kanpo-proba agintzen ditu Espainiako legearen egutegiak: 2. Batxilergoan bata –Selektibitatea ere orduan egiten duteenez, Selektibitatea baino ez dela egingo agindu izan dute Hego Euskal Herriko

administrazioek– eta 4. DBHn bestea (16 urterekin): 4. DBHko errebalidak ondorio akademikoak ditu, eta gainditu egin beharra dago aurrera jarraitu ahal izateko, baina 2017-2018an aplikatuko litza-teke ondorio akademikoekin, eta beraz, ikasturte honetan proba egin egingo da Hego Euskal Herrian, baina printzipioz ebaluazio-diagnostikoa izango da eta ez du espediente baldintzatuko. Urtebeteko tartea irabazi dute Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, LOMCEren eragina apaltzeko.

Ingelesa jaun eta jabe

Hizkuntzen trataeran, A, B eta D ereduak sistema gainditu eta euskara ardatz izango duen murgiltze eredurantz egin beharrean, ereduak sistema mantendu eta ingelesari ateak parez pare irekitzen dizkion dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzak, aurtengo ikasturterako. Hala salatu du Idigoras. “Ereduak gainditu dira, bai, baina euskararen kaltetan eta ingelesaren mesedetan. Heziberriaren arabera, ikastetxe bakoitzak aukeratzen du zenbat ikasgai emango dituen ingelesez, eta zalantzarik gabe, ikasturte honetan gora egingo du ingelesez emango diren ikasgaiak kopuruak”. Iaz, 22 orduetik 18ra jaitsi zen euskaraz egin beharreko ikastorduen gutxieneko kopurua, eta 11tik 14ra igo zen ingelesezkoena.

Irakasleak ebaluatuko dituzte

Heziberriaren arabera, “hezkuntza eskumenak dituen sailak ebaluatuko ditu ikastetxe publikoetako irakasleen kompetentziak. Ikasleek berek ere parte hartuko dute”. Hauteskunde ondoan, dekretuen bat onartuko dela eta ikasturte honetan bertan irakasleak ebaluatuko

izango direla uste du Idigorasek. Nola, zeinek eta zer ebaluatuko da zehazki? Zein funtzio izango dute ikasleek prozesuan? Zeresana emango du gaiak, ziur.

Bestalde, urtea amaitu aurretik aurkeztuko ditu Jaurlaritzak aurrekontuak, baina azken urteetako joera jarraituko duela eta hezkuntzara bideratutako inbertsioa ez dela nahikoa izango aurreikusitako solaskideek. Proportzioan, 28en Europar hezkuntzara bideratutakoaren batez bestekoa %5 dela gogoratu du Irastorzak, eta zerrenda horretan EAE azken-hirugarrena eta Nafarroa azken-aurrekoa direla, Espainiako Estatuaren atzetik: “Europako herri aberatsenetakoa gara eta proportzioan Extremadurak baino askoz gutxiago inbertitzen dugu hezkuntzan. 2013an, %3,7 inbertitu zuen EAEk eta %1,3ko diferentzial hori 842 milioi euro dira”. Ratioak –ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua– handitu egingo dituztela ere uste dute sindikalistek, hala ari direlako urteotan. 2009tik, %10 ikasle gehiago dago gelako, “eta horrekin 3.600 lanpostu aurreztu dituzte”.

Berri ona, Madrilgo Auzitegi Konstituzionalak irakasleei eskola-ordu gehiago agindu arren –aurreikusten zen neurriak EAEn 3.000 lanpostu inguru galtzea ekarriko zuela, baita irakasleen denbora urrituz hezkuntza kalitatea kalteztzea ere–, Eusko Jaurlaritzak epaia saihestea eta praktikan murrizketa hori ez aplikatzea lortu duela, zaintza orduak, proiektuei eskainitakoak... irakastordutzat hartuta. Ordezkapenatarako epeen kasuan ere ez da aldaketarik espero, interpretazio irekia baita Madrilgo legeak uzten duena.

Nafarroan, D eredua lehenengoz eta Ingeleseztarako Programarekin bueltaka

Foru Erkidegoan, LOMCE etapa guztietan sartuko da indarrean ikasturte honetan eta bai curriculumean, bai kanpo-probetan, EAEko panorama errepikatuko da oro har. Lehen aldiz, lurralde osora zabaltzeko D ereduaren eskaintza eskola publikoan, baina sentsazio gazi-gozoa du Amaia Zubietak (Steilas). Kanpoko presioak kikilduta, Nafarroako Gobernuak ez duela behar bezalako kanpaina eta estrategiarik jarraitu eta informazio faltagatik salaketa asko jaso dituztela kontatu digu Zubietak: “Ez zuten zehaztu zein konpromiso zizuten, zein herritan zabalduko zituzten ikastetxeak, D eredua ezartzeko nahikoa eskaera egongo ez balitz ere plaza bermatuko zitzaizela ikasle horiei beste ikastetxe batzuetan...”

» 4. DBHn ere kanpo-proba egingo da, baina printzipioz ez du balio akademikorik izango: urtebeteko tartea irabazi du hemengo administrazioak, LOMCEren eragina apaltzeko

Mamuz eta ziurgabetasunez beteta ikusi ditugu gurasoak, eta horri gehitu behar zaio ikastetxeetan bertan etsaiak izan dituela neurriak, gurasoak nahasiz. Emaizta izan da eremu ez euskaldunetako ikastetxe publikoetan ikasle gutxi eman duela ize-na D ereduaren eta hiru lerro baino ez direla irekiko aurretik: Tafallan, Lodosan eta Caparrosen. Tuteran eskaera bakarra izatea ez da normala, Faltzesen beti aldarrikatu dute D eredua eta bi ikasle baino ez matrikulatzea ere esanguratsua da...”

UPNren Gobernuak ezarritako IIP Ingeleseztarako Ikasteko Programa polemikoa-ri iaz moratoria ezarri zion Uxue Barkosen Gobernuak, dagoeneko mar-txan dagoen

ikastetxeetan mantenduz, baina IIPren ebaluazioa abiatu du. Oraingoz, ebaluazio soziologikoa eta ikasleena egingo dago eta emaitzak iraila bukaeran jakinaraztea da asmoa. Arlo honetan ere, beldurrez antzematen du Nafarroako Gobernuak Zubietak: “Presioa handia da, mediati-koa, oposizioarena, gurasoena (ziurre-nik manipulatuak)... Ingelesa vs. euskara dinamikara mugatu dute eztabaida eta luzerako dugu IIP, ea zein modutan gau-zatzen den datozten urteetan...”

0-3 urtekoentzat haurreskolak –“eliteko zerbitzu pribatu bihurtuak”– publikatze-ko eta doakotasun progresiboa ezartzeko eskaerak ere ez du aurrera egingo ikastur-te honetan: “Planteatutako urrats guztiak atzera bota dira, dirurik ez dagoela argu-diatuta”. Diru kontuetan, hain juxtu, estu jarraituko dutela aurreikusi du Zubietak, aurretik dauden murrizketa guztiei aurre egiteko nahikoa ez. EAEn ez bezala, Madri-lek aginduta irakasleei gehitu zitzaizkien ikastorduek ez dituzte jaitziko, ordezka-penetak murrizketak ere mantenduko dira eta bi arlo nabarmendu ditu Steilasko kideak: premia bereziko ikasleei erantzut-eko baldintzak bereziki kaskarrak direla, eta 2010ean irakasleen formazioan egin-dako murrizketa basatiaz geroztik ez dela formaziorako diru kopurua handitu.

Ratioetan eta karguetan aldaketak

Ratioetan aldiz, aldaketak izango dira aurretik: lehengora txikituko dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ez ordea Derrigorrezko Bigarren Hezkun-tzan. Neurri horrekin, 40-50 bat lan-postu berreskuratu dira. Bestalde, UPNren garaitik mantentzen zizuten hainbat kargutan mugimenduak gauzatzen ari dira aurretik –Hez-kuntza kontseilariaren alboko bi zuzendariak kendu dituzte, eta mugimendu gehiago espero dira– eta horrek aurrerapau-soak ematea erraztuko du, Zu-bietaren esanetan.

LOMCE eta albo-kalteen ondorioz, aldrebesak eta beroak iza-ten ari dira azken ikasturteak Hego Euskal Herrian, eta antze-ko itxura du datorrenak ere. Ma-drili begira jarraitzen dute gure Hezkuntza buruek, Espainian go-bernu berria noiz osatuko, ea horrela lege atzerakoa –edo gutxienez kanpo-probak eta punturik gordinenak– ber-tan behera geratuko ote den. ■



Gustavo Suarez Lucas, Kolonbiako buruzagi indigena

“GOBERNUA LURRALDE INDIGENAK MURRIZTEN ARI DA, BERE IKUSMOLDEAREN ARABERA, ANTZUAK DIRELAKO”

Bi kultura ditu, ama Tikuna eta aita Kokama etniakoa izaki. Mazedonia komunitatean bizi da, Amazonas eskualdeko alde kolonbiarrean. Indigena da kolonbiarra izan aitzin, Kolonbian, Perun eta Brasilen bizi baitira indigenak. Bere komunitatetik San Martin de Amacayacu aldera hurbildu zen ekainean, bertan ohikoa ez den diskurtso politizatua partekatzeraz ACITAMen (Amazonas Eskualdeko Buruzagi Indigenen Elkarte) izenean.



TESTUA ETA ARGAZKIA
Joanes Etxebarria

Historia ikusita, nolatan mantendu da kultura hain azkar Amazonas inguruetan?

Lehenik konkista izan zen eta gero ebanjelizazioak ere herri indigenak gogor kolpatu zituen, jainko giristino bat inposatuz. Kazike asko hil ziren pentsamendu indigena defendatuz, baina agureek, itzalean, gure ohiturak haurrei transmititu zizkieten, eta haurrek beren haurrei. Inbasioari aurre egiteko herri anitz basora bizitzera joan ziren, eta oraindik ere asko oihanean sartuta daude, erreka (Amazonas) ezagutzen ez dutenak. Beste asko erreka bazterrera itzuli ziren eta transmisioarekin segitu zuten. Gero kautxu ustiatzaileak etorri ziren, egurraren ustiapena, larruen trafikoa... kanpotik etortzen ziren enpresariak indigenak menpekotzat hartzen zituzten, edo hiltzen zituzten bestela. Hirietara eramaten zituzten eta han beren kultura galtzen zuten. Gero kokaren garaia izan zen. Kolonbiakoa ez zen jendea, gringoak edo, beste pentsamolde batekoak, eta haiekin ere nahasketa gertatu zen. Agureei esker mantendu

da gure kultura eta nire ardura ere bada mantentzen segitzea. Gurean ez da deus idatzi izan, baina mingan (auzolanean) agureek irakaspenak ematen zituzten.

San Martineko herritar guztiek Tikuna hizkuntza mintzatzen dute. Hori borroka-ren ondorio da?

Hala da. Baina San Martin errekatik (Amazonas) urrun dago eta ez dute kultura galdu, beste leku batzuetan bezainbeste. Mocagua, Zaragoza, Mazedonia (eskualde bereko beste komunitate batzuk) komunitateek kanpoarekin kontaktua handiagoa izan dute erreka gertutasunagatik. Gure irakasleek eragin handia ukan dute, komunitatekoak dira eta hizkuntza hitz egiten dutelako. Gurasoek ere hizkuntza badakite eta transmititzen dute. Hiriko ikasle batek soilik gobernuak agintzen duena ikasten du, gurean bikoitza da, gurea eta bestea, hori abantaila da! Gure ingurumena ulertzeko, mantentzeko eta transmititzeko, ezinbestekoa da irakaspen propioa garatzea. Baina bestea ere garrantzitsua da, adibidez, ideiak papere-

ra eramateko, hori akademiak ematen digu. Internet ere iritsi zaigu kolpetik, duela 10 bat urte. Gure jakintza garatzeko garrantzitsua da tresna hori ere, Googlen edozer bilatu, irakurri eta ikasi dezakezulako.

Gobernuarekin dituzuen harremanak beti konfrontazio mailakoak ote dira?

Lehenago gatazka handia zen. Aurreko gobernuetan, Alvaro-Uriberena kasu, Kolonia garatzeko modu bakarra gutxiengoekin bukatzea zen, pentsamendu bakarrak garaitzeko. Gobernu horrek asko markatu gaitu, hezkuntza inposatua, ebanjelizazio inposatua, eta beti haiek nahi zuten gisara, sekula indigenak nahi zuten maneran. Haren gobernuak iraun dituen 8 urteetan gure eredu garatzeko borroka eraman dugu.

Gaur egun eskubide anitz irabazi ditugu, borrokatuz eta eztabaidatuz. Gaur egun jurisdikzio indigena propioa aipatzen da. Adibide bat hemen, San Martin de Amacayacu komunitatean: herriak ingurumen justizia aplikatzen du, justizia penala ere. Gobernuak ezin da sartu kon-



tzertaziorik ez bada: autoritate indigena eta estatuarena mahai inguruan jartzen dira kasu bat aipatzeko. Delitu batzuen kasuan (lapurreta, bortizkeria familiaren baitan) gogoeta daramagu. Ezinezkoa da gobernuak ulertzea gure ikuspegia. Demagun emakume bat jotzen duen gizonaren kasua. Delitu larria da denentzat, baina harekin zer egin desberdin ikusten dugu. Justizia arruntak kartzelan sartzen du, bertan gaizkileekin elkartu eta handik gaizkile aterako da. Gurean bilatzen dena da, batetik zigortzea, baina nola bersozializatu ere, pertsona ona bilaka dadin. Hemen buruzagiak boterea badu, baina botererik handiena biltzar herrikoiaarena da, biztanleena.

San Martin komunitatea Amacayacu Parke Nazionalaren eremuan kokatua da. Horrek gatazka gehiago eragin lezake?

1950eko hamarkada inguruan sortu ziren Parke Nazionalak, handik, hiriburutik. Hemen biztanlerik izan ez balitz bezala sortu zuten. Indigenarentzat ez zegoen mugarik, ez zegoen Ekuador, Brasil, Peru edo Kolonbiarik. Herrien

mugak marraztu ziren indigenak kontuan hartu gabe, horregatik gaude Tikunak Peru, Kolonbian edo Brasilen. Ni hemen nago, nire aita Brasilen, eta nire anaia Peruko mugan dago. Herri indigenak itxiak gelditu ziren, lurralde antolaketa egin zelako hemen ez bageunde bezala. Parke Nazionala eraiki zuten bi komunitateren lurretan, San Martin eta Palmeras. Indigenak gara zinez Amazonas eskualdea babesten dugunak, baina baliabideak ez zaizkigu guri iristen, bai ordea GKEei eta Parke Nazionalari. Horregatik bada gatazka eta badakigu segituko duela, ingurumenaren inguruko gaia baino, hau politikoa delako. Gure galdera da Parke Nazionalak norentzat babesten ditu baliabideak? Amazonas babestu behar da, munduarentzat.

Zeintzuk dira premiazko beharrak herri indigenentzat?

Amazonas eskualde honetan, lehentasuna lurraldetasuna da. Indigenak sistemak aplikatu nahi baditu, izan hezkuntzan, osasunean, justizian ala gobernantzan, horretarako lurralde bat behar du. Ezin

dut familia bat ukan, ez badut etxe bat. Poliki-poliki, gobernu lurralde indigenak murrizten ari da, bere ikusmoldearen arabera, antzuak direlako, eta ekoizpena dedikatzea nahi lukeelako. Hori erratean iduri luke indigenak ez duela lan egiten; ez du lan egiten eskala handian, baina bere beharrei erantzuteko bai. Gure lurraldea nahi dugu, estatu barruko eta kanpoko aktorerik gabe (enpresak, multinazionalak). Amalurrarekin konektatzeko gure lurraldea berreskuratzea nahi dugu, oihaneko eta uraren espirituekin bat egiteko. Hori guztia ez da gure esku oraingoz, Parke Nazionalaren esku dago besteak beste.

FARC eta gobernuaren arteko negoziazioek eraginik izan lezake hemen?

Laborantza-erreforma aipatzen dute, eta jakin nahi guke lurraldeak nola zatituak geldituko diren. Mapa politikoa aldatuko da, baina nolakoa izanen da? Negoziazioetan indigena talde bat egon zen, baina lurrik gabeko indigena ez da gehiago indigena, beraz ikusiko da nola garatzen den. ■

Zerbait gertatzen ari al da Aian?

Galderak eragitea, erantzun egokiena

Herri euskaldun peto-petoa imajinatzen dugu Aia (Gipuzkoa), ia erabat euskaraz egiten dena. Joxe Anjel Aldai herritarrek Aiako kale eta leku publikoetako ahozko hizkuntzaren erabilera neurtu du, eta ia laurdenak, %23,84k, gaztelaniaz hitz egiten du.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Karkara.eus

@karkaraeus

Hogei urte atzera eginez gero, Aian ar-gazki guztiz ezberdina aurkituko genuke, nola euskararen erradiografiari erreparatuz gero, hala egoera sozio-ekonomiko kulturalari dagokionez.

Aldaketa horren erretratua egin nahi izan du Joxe Anjel Aldai Arrillagak. Mas-terreko azken lana egin behar zuela ait-zakia hartuta, Aiako kaleko eta leku publikoetako ahozko hizkuntzaren era-bilera neurtu du.

Datuak biltzeko 151 elkarrizketa en-tzun ditu Aldaik. Ondorio potoloak ateratzeko sakonago aztertu behar dela aitortu duen arren, eta aurretik analisi mardulik egin ez den arren, lortutako datuek euskararen termometroa erdal-duntzen ari dela islatzen dute. Aurreko hamarkadetan baino erdaldunagoa da Aia. Egun, kale eta leku publikoetan, euskararen erabilera %64,24koa da, gazte-laniarena %23,84koa eta hizkuntza-kode aldaketa %11,26koa. Erdalduntze proze-su horretan eragina izan duten faktoree-tako batzuk gaitasuna, etxeko euskara-ren erabilera eta etxeak eraikitzea dira.

Gaitasunak eragin zuzena euskaldun kopuruan

Eustaten 2011ko datuen arabera, %6 zi-ren Aian erdaldunak, eta beste %6 ia eus-kaldunak. Euskaldunen artean, gehien-go, alfabetatua dago, %69. Gero eta haur eskolatu gehiago egon arren -1986an %10 soilik zen alfabetatua-, euskara gai-

tasunak behera egin du. Izan ere, popula-zio orokorra hartzen da kontuan eta hor, haurrak nahiz helduak sartzen dira.

Ama hizkuntzan gaztelania nabarmen hazi da

Atzera egiten ari da euskararen erabile-ra etxe barruan. Hamar urtean %92tik %74ra jaitsi da erabilera. Euskarak behera eta gaztelaniak gora, %5etik %17ra. Horrek eragin zuzena du trans-misioan.

Gizon-emakumeen arteko aldea, argia

Bien arteko aldea esanguratsua iruditu zaio egileari. 12 puntukoa da diferen-tzia. Hortaz, generoaren eragina handia dela ondorioztatu du aiarrak. Elkarriz-ketak genero berekoen artean direnean, gizonezkoek, euskaraz egiten dute ia beti, %71k -emaitza orokorretan baino zazpi puntu gehiago-; emakumezkoen kasuan, aldiz, %59k -emaitza orokorre-tan baino bost puntu gutxiago-.

Eraiki ahala, erdaldundu

Aiako populazioa hazi egin da. Egun 2.053 biztanle ditu herriak. Horietako asko kanpotik etorritakoak dira, etxebi-zitzak eraiki direlako eta inguruko he-rrietan baino merkeagoa delako, bes-teak beste. Eta kanpotik etorritakoek, oro har, eragina izan dute erdalduntze prozesuan. Gaztelaniaz hitz egiten dute, sarri, etxean nahiz etxetik kanpo.

Heldu askok, gaztelaniaz

Haurren artean gaztelania apenas en-tzun du Aldaik. %91,66k euskaraz hitz egiten du. Haurren eta helduen arte-ko elkarrizketetan ere, batez beste, %77,77an euskara erabili da. Hori bai, haurrak egonagatik, elkarrizketan era aktiboan parte hartzen ez badute, behe-ra egiten du euskarak. Helduek, ordea, gaztelania nabarmen erabiltzen dute -datu orokorra baino bost puntu altua-go-. Aipagarria egin zaion beste datu bat kode aldaketa ia guztiak helduen elkarrizketetan izatea da.

Protagonismoa galtzen

Pertzepzio hori du Aldaik. Euskara ka-lean protagonismoa galtzen ari dela. Susmo hori du. Eta susmoa argitzeko, gizartea aldatzen ari al zaigu? galdera-ren erantzun bila egin du *Hizkuntzen ahozko erabilera Aiako kalean eta leku publikoetan* lana. Erantzun gisa galdera gehiago planteatzen ditu Aldaik: zer-bait gertatzen ari al da gure herrian? Gertatzen ari bada, onerako ala kaltera-ko da? Hizkuntza aldatzen ari bazaigu, gure harremanak eta harreman-sareak ere aldatzen ari al dira? Honen aurrean, zer egin?

Dena den, egin duen bilaketa horre-tan esperotakoa aurkitu duela azaldu du aiarrak: euskararen erabilerak ka-lean eta leku publikoetan behera egin du. ■

JOXE ANJEL ALDAI ARRILLAGA

**“IRUDITZEN ZAIT ELKARTE ETA MUGIMENDUEK ERE
ARDURA PITTIN BAT HARTU BEHARKO LUKETELA”****Zein izan zen ikerketa lan honen abiapuntua?**

Funtsean, uste dut, kuriositateagatik izan zela, baina baita kezkatik ere. Sumatzen dut, nahiz eta zoritxarrez asko ez den komentatzen, nahikoa nabarmen aldatzen ari dela herria. Ez onerako, ez txarrerako. Aldaketa hori saiatu naiz islatzen. Antza, eragina du erdalduntze prozesuan.

Hortaz, duzun kezka edo ardura hori plazaratu nahi duzu. Herritarrak gai honen bueltan hizketan jarri.

Aurretik ez da kaleko euskara neurtu, sekula. Daturik ez daukagun arren, pertzepzioa dut gutxiago erabiltzen dela. Gogoia eta esperantza daukat eskolaren eskutik-edo, nolabait, lanaren berri emateko gurasoei.

Eskolaz ari garela... Guraso batzuek eskolako irakasgai batzuk gaztelaniaz emateko eskakizuna egin zuten. Zergatik izan daiteke, gaztelaniaz moldatuko ez direnaren konplexua dutelako?

Ez naiz egokiena horretaz hitz egiteko, nire ideiak ditudan arren. Konplexua baino gehiago ezjakintasuna dela esango nuke, irudipena beren seme-a-



labak Aiatik kanpo gaizki moldatuko direla. Gaztelaniaz motel dabiltzala euskara soilik egiten dutelako. Baina bata ez du bestea kentzen. Iruditzen zait erabat euskaraz eskolatzea fundamental dela, hizkuntza horretan erabateko garapena eta funtzionaltasun osoa izateko. Erdipurdi eskolatutakoak arazoa izango baitu. Nire belaunaldian gertatzen da hori, asko ez baitira gai euskarazko egunkaria irakurtzeko.

Eskolako gurasoek alderantzizkoa esan dezakete.

Erabat demostratuta dago, gerora ere gaztelaniaz hitz egiteko gaitasu-

na izango dutela. Batetik, haurrak direnetik hitz egiteko gaitasun minimoa dutelako; eta, bestetik, hainbat iturritatik gaztelania jasotzen dutelako: eskolan, telebista, internet... Kezka hori zilegi iruditzen zait, baina ezin du bestearen kalterako izan. Hori da kezkarria, pentsatzea gaztelania beharko dutela eta euskara ahazko hizkuntza bakarrik dela.

Eskolak ez ezik, Udalak ere lagundu dezake euskararen**normalizazioan, zure kezka plazaratzen. Aian, ordea, ez dago euskara teknikaririk edo herriko talde eragilerik. Hutsune hori ikusten duzu?**

Inoiz ez dago soberan. Are gehiago orain. Lan honekin daukadan prentzio txiki bakarria ezagutaraztekoa eta jendeari galderak sortzekoa da. Ez dakit Aian, daukagun biztanleria eta ditugun baliabideak kontuan hartuta, zer zerbitzuek egon behar duen; baina, iruditzen zait, kezka gutxienez eduki behar dugula. Kezka horri bidea emateko Udalak laguntza eman behar du. Baina ez soilik udalak, elkarte eta mugimenduek ere ardura pittin bat hartu beharko lukete. ■



B
Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

***Ez beldurrik izan
datorrenari...
eskatu orain 2017ko
ARGIAren egutegia
eta irailean
eskuratuko duzu.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

50€

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari



☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

SUNTSIPENAREKIN BATERA, JOGURTA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Danubio, 432. Hunoek, Roa erregea buru, ibaia zeharkatu zuten. Urte batzuk geroago, Atila errege zutela, 451. urtean, Galian sartu ziren eta, handik urtebetera, Erromaraino ere iritsi ziren. Asiako herri nomada hondamenaren eta basakeriaren sinonimo izan da beti; Atilaren zaldia igarotzen zen tokitan belarra berriro hazten ez zela dio esamolde ezagunak. Baina Atilak ez zuen beti anker jokatu eta behin baino gehiagotan diplomazialari trebea ere bazela erakutsi zuen. Barbaro krudelaren ospea erregeak berak sustatu zuen, hain zuzen, negoziazioetan konfrontazio zuzena saihesteko erabil zezakeelako. Gerra psikologikoa ere baliatzen zuen, beraz.

Hala, hunoek ez zuten suntsipen soila ekarri Europara. Konkistatzen zituzten herriengandik erabilgarriak iruditzen zitzaizkien ohiturak bereganatzen zituzten eta gero, lurralde berrietara joaten zirenean, han zabaltzen zituzten ohitura horiek. Horixe gertatu zen, adibidez, jogurtarekin. Jogurta ez zuten hunoek asmatu; jakiak Turkian edo Bulgarian du jatorria –bulgarierazko *jaurt* hitzetik hartu zuen izena–, baina hunoek ezagutarazi zuten Europa men-debaldean.

Hunoen kulturak oso lotura estua zuen zaldiekin; zaldia eta zalduna bat



Mór Than (1828–1899) margolariaren 'Atilaren festa' lana. Atilaren garaikide Prisko historialariak deskribatutakoa mihisean jaso zuen pintore hungariarrak. Prisko traziarrak hunoen erregearen berri eman zuen, baita hunoen ohitura eta ospakizunena ere, baina ez zuen zehaztu ospakizun horietan jogurta jaten zuten ala ez.

ziren, unitate bakarra osatzen zuten. Eta horretaz baliatu ziren jogurta ekoizteko ere. Behiak eta ardiak jetzi, esnea egosi eta zahagietan biltzen zuten. Zahagiek forma berezia zuten, zaldunek zela azpian eramanez ahal zituzten. Joan-etorri luzeetan eta guduetan ibili ondoren, zaldiaren eta zaldunaren berotasunean eta zahagiaren larruak lagunduta, bakterio

azidoak ugaltzen ziren eta esnea hartzitu egiten zen. Ipurdi azpian epeldutako jogurta zuzenean zahagietatik hartu ohi zuten, intxaur edo arbendola birrinduz lagunduta.

Irudizko adieran, hunoen zaldiek belarra berriro ez haztea eragiten zuten, baina, literalki, esnea hartzitu eta jogurta ekoizten zuten. ■



Ibilgailu korazatu sekretuaren izena

Lehen Mundu Gerran britainiar armadak proiektu sekretua jarri zuen martxan lurreko lehen motordun ibilgailu korazatuak egiteko. Baina batetik bestera eramaten zituzten burdin pieza handiak gordetzea ez zen erraza eta, horregatik, erregai deposituak edo tangak (ingelesez, *tank*) egiteko xafalak zirela zabaldu

zuten, benetako helburua isilpean gordetzeko. Ibilgailu korazatu hari *Mark I* izen propioa jarri zioten (argazkian) eta gudu zelaian erabili zuten lehena izan zen. Trankuluaren izen generikoa, aldiz, lehenago asmatu zuten nahi gabe, proiektua estali nahi izan zutenean. Handik aurrera *tank*, edo tanke, esan zitzaien. ■

Hormonak borborka



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Lehengo astean nioen, landare asko ugaltzeko sasoian gara. Batzuk errazak dira, hain zuzen ugaltzeko bereziki sortutako zatiak baitituzte: tuberkulua, erraboila, herrestadarra... Hala ere, horietakoren bat ez duen edozein landareekin saiatzeko ere ez da haxe sasoi txarrena. Berez ugaltzeko ez badira ere, hostoa edo adarra, esate baterako, landare berri bat sortzeko gaitzat balia ditzakegu.

Ugaltzeko zatiak ez diren horiek aldaxka edo eskeje gisa landu behar dira. Oinarria sinplea da, garun hutsez ulertzen da: aldaxka egiteko hostoa edo adarra landare amari kendu egiten diogu. Kentzeko ebaki edo moztu egiten da. Ebaki horrek zauri bat sortzen eta uzten dio bai amari bai kendutako hosto-adarrari. Zauri horiek itxi egin behar ditu landareak. Zauriak ixteko zelula berriak sortu behar dira ebakiondoa ondo orbaintzeko. Zelula berriak sortzeko zauriaren inguruan hormonak pilatu behar dira. Zelula berriak sortzeko orduan, landare puskak aldamenean lurra dagoela sumatzen badu, orbaina eratzearekin batera



Berez ugaltzeko ez badira ere, hostoa edo adarra balia ditzakegu landare berri bat sortzeko.

sustraiak emango ditu. Horratx itsatsitako aldaxka edo eskejea. Errotutakoan, kimu berria luzatzen hasiko da: ondo etorri, landare berria. Betiere amaren berdina; berdin-berdina. Amaren klona, haren zati batetik sortua baita.

Aldaxkatik landare berria sortze hori errazago egiten dute gazteek. Hazi eta hazi ari direnez, hormona aukera dute, borborka. Landarearen indarrak piltzen diren punttako adarrak eta hostoak dira egokienak.

Ugaltzeko era hori ia edozein landareekin erabil dezakegu, neguaren amaieratik hasi eta udaren amaiera arte. Adarrak erabiltzea ohikoa egiten bazaigu

ere, hostoak antzatzzea bitxia da gehienontzat. Aise asko egiten da ba! Etxe barruko landare ugariaren hostotik landare berriak sortzea erraza da: *Begonia rex*, etxeberriak (*Echeverria sp.*), sansebiar (Sansevieria sp.), gloxinia Brasildarra (*Sinningia speciosa*), peperomiak (*Peperomia sp.*) eta abar. Landare amari hostoak kendu. Handiak badira zatitu, txikiak osorik; lur gainean jarri. Txorrenaren edo ebakiaren aldean lur pixka bat eman. Toki epel eta argi batean eduki, plastiko garden batekin estalita. Estalki hori tarteka ireki. Hormonak di-tuen urez ureztatu. Hori egiteko era hurrengo lezioan... ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.


Kaixo Jakoba. Gaur seme zaharrena, Zubietako parajeetan barna ibiltzera joan da, eta bueltakoan kontatu dit ezezagun zitzaion arbola bat ikusi



duela; adartxo bat ere ekarri dit, hostoak eta "fruitua" ikus nitzan. Nik ez diat asmatzen zein ote den zuhaitz hau, pentsatzen dut haltzarekin zerikusia izanen duela, baina ez dut *Alnus* familian horrelakorik aurkitzen. Zalantza argituko?

Edorta Murua (Zubieta, Nafarroa)

Kaixo Edorta. Bai, haltza da, haltz italiarra edo napolitarra deitzen zaio: *Alnus cordata*. Hegoaldekoa da, izenak garbi dio... Ongi izan.



LORATU.COM

Merkatuko postua, Interneten



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Baratzearen bueltan dabilen familia izan da gurea betidanik”, azaldu digu Arrate Imazek, Zubietako (Gipuzkoa) Amere Goikoa baserriko alabak. Lora-tu izenarekin sortu berri duten web-gunearen arduradun nagusia da. Argi du, ordea, familiako lantaldearen parte direla bera eta sareko gune jaioberria. Nortzuk diren lantaldeko beste kideak? Aita eta anaia. “Webgunea izan baino lehenago, anaiak baratzea lantzen zuen eta gurasoek Donostiako merkatuetan saltzen zituzten produktuak”. Salmenta bide horrek izan zitzakeen mugez jakitun, bestelako aukerarik ere bazela ohartu zen Imaz. Eta hari horri tiraka iritsi da Lora-tu.

Egun osoan eta leku denetara zabalik Merkatuko ordutegietan, goizez soilik, jende askok ezin izaten du erostera joan. Donostiako merkaturan ibiltzen ziren kanpoko turista askok ere beren produktuak eskuratzeko beste moduren bat eskatzen zieten. “Hortik atera zen webgunea irekitzeko proposame-na”, kontatu digu Imazek. Euskal He-

rrian nahiz mugaz gaindi dute beren produktuak banatzeko asmoa. Webguneak martxan egun bakarra daraman honetan, Madril aldetik eskaera jaso dute jadanik...

Bakoitza bere alorrean

Familiako kide bakoitza bere esparruan buru-belarri aritzen bada ere, elkarri laguntzea nahi gabe ematen da: “Anaiak porruak aldatu behar baditu, familia osoa joaten gara baratzerara. Berdin aitzak merkaturan laguntza behar duenean”. Familiako beste ahizpa ere, kate horretan lan zehatzik izan gabe, denean laguntzen aritzen da.

Loraturen inguruan galdetuta, “proiektu” hitza handi xamar egiten zaiola dio Imazek: “Zerbait naturala izan da prozesua, erdi nahi gabe at-er da. Gutako bakoitza pausoz pauso joan da aurreraka”. Onartu du, hala ere, pixkanaka proiektu izaera hartzen do-la kontua. Ez gara ohartzen maiz, gure eguneroko jardunetik atera ditzakegula ideia berriak eta loratu proiektu txi-kiak. ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
“mattin” Martiarena, Ainara Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Irailak 23: Munitibar

Lekua eta ordua zehazteke.

Irailak 28: Elgoibar

Izarra elkarteak antolatuta.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

ARGIAKOEN GUNEA | GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK |



Parte hartu iraileko zozketan eta irabazi

Hezkuntza, gizarte eta eraldaketa kooperatiboa

Hezkuntza, gizarte eta eraldaketa kooperatiboa ulertzeko gakoak

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Lanki ikertegiak argitaratu zuen 2010. urtean Joseba Azkarragak idatzitako gogoeta liburu hau. Bertan, izenburuan ageri diren hiru kontzeptuak josten ditu egileak, hezkuntza ardatz estrategiko bezala hartuta. Proposatzen den gogoetak bi gairi helden die. Batetik, bizi dugun eta bizi gaituen garaia ulertzeko gakoak inguruko hausnarketabat (indibidual zein kolektiboa) eta bestetik, zer hezkuntza-eredu eta zer hezkuntza desafio dugun zehazteko hurbilpena. Alderdi teoriko eta abstraktuak zein osagai zehatz eta praktikoak erabiliz, liburu hau hezkuntza-berrikuntzako lerro xume eta zehatz batzuetara hurbiltzen da. ARGIA-ko kideek lau aleren zozketan parte hartzeko aukera izango dute hilabete honetan zehar.



LANKI IKERTEGIA. HUHEZI. MU.

943 79 54 46

<http://mukom.mondragon.edu/lanki/b>

#autoeraketa

#ekonomiasoziala

#lankidetza

#hezkuntzaeraldatzaila

Iraileko zozketak



Txatxilipurdi elkartek kaleratutako SUA mahai jolasa, euskal mitologiako pertsonaiekin ikasi eta jostatzeko (4 joko).



Mugarik Gabe GKEak argitaratutako "Desazkundea eta ondo bizitzea" eta "Elikadura burujabetza, genero ekitatearekin" liburuxkak (2 sorta).



Ekologistak Martxan-ek Euskal Zor ekologikoaren inguruan egindako liburuxka eta dokumentala (4 sorta).

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



XABIER LETONAREN ANALISIEI AGUR ETA OHORE

Gazteluko Plazatik dator notizia



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Lerro hauek irakurtzen dituzunerako zenbat aldiz errepasatuko ote zenuen aldizkaria, iraileko lehen zenbakian topatu ez zenuen “Gazteluko Plazatik” atal preziatua oraingoan aurkituko duzunaren esperantza txiki batekin. Imajinatzen zaitut, lagun, orriak alde batera eta bestera, urduritasun puntuari tristura gailendu zaion arte, bigarrenaz; jabetu baitzara zenbaki honetan ere ez dato-rra Letonaren analisirik.


Segarekin ez, baina igitaiarekin datorrenaren paperean jartzea tokatu zait, eta albistea eman behar dut: euskaldunok, “Gazteluko Plazatik” hil da. Tira, hil... agian bortitzegia da; atala bera bukatu da, baina Xabier Letonak bere zorrotasunez jarraituko du *Larrunen* ez bada elkarriketa edo erreportaje- ren batean orri hauek bete eta irakurlea asetzen.

Sasi-kazetari gazteari beti iruditu zaio politikaz egindako analisiak idaztea ausarta, zaila, eta galdetu dio Letonari, jakin minez, berak nola lortu duen gai eta

garai zakarrenetan ere arinkerian geratu gabe zorrotasunez idatzi eta aldi berean oreka mantentzea. Erantzunak datorren generazioari emandako gomendioa gehiago dirudi: norberaren askatasunean sinetsita, inguruko, lankideen ikuspegia kontutan hartuta, lehen helburua irakurlea izanda, eta noski, idatzita eta idatzita.

Gazteak irakurri ditu azken artikulua eta badaki hamar urte hauetan berak hartu duela analisi politikoaren arduraz ARGIA. “Hori ez da konfiantzarekin bakarrik egiten”, pentsatu du. Letonak urteen poderioz lortu du askatasuna, baina baita informazioa ere. Garrantzitsuena lortu du, ordea, informazio hori guztia interpretatzen jakin eta irakurleari modu erosoan adieraztea.

Letonak aurreko kazetariren bati hartuko zion testigua, eta orain berari tokatuko zaio besteren baten eskuetara pasatzea. Karpeta hori itxi da. Baina fase horri agur baino fase berriari ongi etorria ematea tokatzen da orain. ■



Urriaren 1ean Ondarroan: zatoz ARGIA Egunera!

Aurtengoan larunbatez ospatuko dugu ARGIA Eguna, Ondarroan, “Puntadaz puntada txikitik eragiten” lelopean.

Bezperatik joan nahi duenak ere aurkituko du festarik: *Trantsizioak* erakusketa ikusgai egongo da eta gauean kontzertuak izango dira ranpan.

ARGIA Eguna 10:00etan ibilaldi gidatua eginez hasiko dute goiztiarrenak, eta egunean zehar izango dira jolas hezitzaileak, eragileen azoka, herri bazkaria, kale animazioa, Olinpiada desobedienteak, kontzertuak...

Argiazaleen Topaketan aukera izango duzu ARGIA lantzen ari garen harpidetza eredu berritua lehen eskutik ezagutzeko eta ekarpenak egiteko.

Ez galdu aukera balioetan oinarritutako festa egin eta zu bezalaxe argiazaleak direnak ezagutzeko!

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerria Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostegunetan, 10:30ean.

YOYES

MITOAK ESTALITAKO JARDUN INTELEKTUALA

30 urte pasa dira 1986ko irailaren 10ean ETAk Dolores Gonzalez Katarain, Yoyes hil zuenetik eta geroztik asko idatzi da haren ibilbide politikoaz eta pertsonalaz; gutxiago akaso, eta zoritxarrez, haren jakin-min intelektualez. Idatzita utzi zituen egunerokoetan oinarrituta, bere irakurketetara hurbilduko gara.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

“Bada nire izena daukan mamu bat eta inguruetan dabil; mamu bat, duela urte batzuk hazten hasi zena, ni ezagutu gabe nitaz hitz egiten hasi zirenetik, eta azken sei urteetan bizirik jarraitu duena, nik hiltzen ari zela uste izan dudana arren. Lagundu diote egunkariei, niri militantzia bat egozten eta istorioak asmatzen segi dutelako; baita bedeinkatzeko edo kondenatzeko mitoak sortzen dituen jendeak ere, beren buruak babestuz edozein galdera edo zalantzatik”. Dolores Gonzalez Katarain Yoyesek esaldi horien bidez adierazi zuen, besteak beste, zein nekatua zegoen narrazio publiko bateko

protagonista bihurtu izanaz. “Izena kendu didate, Yoyes fikzio bat da, asmakuntza bat, ez naiz identifikatua sentitzen hainbat posizio politikotatik barajatzaren diren bakar batekin ere”, utzi zuen idatzia bere egunerokoan: 1979an hasi eta 1986ko irailean ETAk hil zuen arte, sarritan jo zuen idazketara bere egoera pertsonala esplikatzen eta gai ugari buruzko iritziak paperean jartzeko.

Haren senide eta lagunek editatuta publikatu ziren eguneroko horiek *Yoyes desde su ventana* (*Yoyes bere leihotik*) liburuan, eta haiek irakurtzea modu ona da ezagutzeko hilketaren aurretik zer



sentitu eta pentsatu zuen Ipar Euskal Herrian, Mexikon edo etxera itzulita. Modu ona, halaber, kontakizun politiko konbentzionalak garrantzirik gabekotzat jotzen dituzten Yoyesen aurpegiak ezagutzeko. Adibidez, bere irakurtzeko zaletasuna.

Irakurketa klandestinoak

Liburuei buruzko iruzkin eta erreferentziaz beteta daude bere egunerokoak. Horri esker dakigu 25 urterekin jada irakurriak zituela Virginia Woolf, Vladimir Maiakovski edo Gustave Flaubert, besteak beste. Zorroztasunez aztertzen



zuen irakurritakoa: 1979ko ekainean, adibidez, Anaïs Nin-en liburu bat irakurtzen ari dela, zera dio: "Kontraesanez beteriko feminista bat, nire ustez, idealista; ez du aipatu ere egiten arazo honetan sistema sozial eta ekonomikoak daukan garrantzia, nabaritzen dituen injustiziekin sentikorra dela ikusten den arren". Egunerokoetan aipatzen den lehen irakurgai horretatik antze-man daiteke ordiziarrak pertsona bezala hazteari ematen zion garrantzia: "Badakit borondatea ez dela dena, baina zeregin inportantea jokatzeko du, batez ere sistema aldatzeko balio duenean;

» Irakurtzen zituen liburuak aipatzeaz gain, maiz iruzkin kritikoak egiten zituen bere egunerokoetan: horiei esker, ordiziarraren pentsatzeko modura hurbildu gaitezke gaur egun

baina etengabe matxakatzen duen ideia, etengabeko eboluzioa, barrura begira biziz sormen propiorako borondatea, pertsonalitatea mantentzea, norbere burua ezagutzea, inkontzientea eta subkontzientea, hori oso ondo adierazia dago eta asko gustatzen zait, noski".

Krisi momentu batean hasi zen idazten, Jose Miguel Beñaran *Argala* hil zuen atentatuaren ondoren eta ETaren barruan zeuzkan desadostasunen erdian, Mexikora joateko aukera buruan edukitzen hasi zenean, klandestinitateko baldintzekin itota. "Bizi naizen moduatik sentsibilitatea galtzearekin obse-

sionatuta nabil eta lasaitu egin naiz hura irakurrita”, idatzi zuen Nin-en liburuari buruzko komentarioen amaiera gisa.

1979ko urrian *Madame Bovary* berri-rakurtzen ari zen “obran gehiago atzematteko”, batez ere estiloan eta forman arreta jarritz “antza denez hori baita garrantzitsuena liburuan”. Azaroan, oraindik klandestinitatean baina kanpora joateko aukerei buruzko berrien zain, Alejo Carpentierren *La consagración de la primavera* “irensten” ari zen. “Abiadura handian pasatzen naiz prosa arin paregabe horren gainetik”. Nobelaren giro tropikala interesatzen zitzaion eta hila-bete berean Carpentierren beste obra bat, 1953ko *Los pasos perdidos* amaitu zuen, Venezuelako oihanean murgiltzen den musikari baten istorioa kontatzen duen liburua: “...eta halako ondoez sentazio bat daukat, larridura, aho-zapore arraroa utzi dit, miresten dut protagonistari eman dion ausardia eta bada paragrafo bat zeinean esaten den ‘ezohiko bideetako ibilaldia inkontzienteki abiatzen da...’, eta orduan desengainua hasten da, eta hunkitu nau”.

Mexiko ulertu nahian, liburuak lagun

1980an abiatu zen azkenik Mexikora eta hango Unibertsitate Autonomo Metropolitanarrean Literatura ikasketak egiteko zorian izan zen, azkenik Soziologian matrikulatu zen arren. Amerikara iritsi eta egun gutxira aipatzen du lehen aldiz liburu bat: “Irakurtzen hasi naiz bi A.-k oparitu zidaten Ulrike Meinhofen liburua eta inpresio sakona eragin dit, a ze argitasuna emakume honen idatzietan!, izugarria da bera bezalako emakume bat desagertu izana eta hain goiz. Nola maitarazten duen bere burua!, bere zabal-tasunarengatik, gauzen ulerkeragatik eta errespetu handiagatik”. Alemaniako RAF talde armatuko kidearen testuak jasotzen zituzten hiru liburu argitaratu ziren gaztelaniaz 1970eko hamarkada bukaeran Bartzelonako Icaria eta Anagrama argitaletxeetan eta segur aski horietako bati buruz ari zen Yoyes. Baina hitz horiek gaur, zein adinekin hil zuten jakinda, ispilu baten aurrean erakusten dute haiek idazten ari zen pertsona.

Iritsi berri zen herrialdea ezagutze-ko gogoak markatzen ditu ondorengo irakurgaiak, 80ko otsailean esku artean zeukan Mexikoko iraultzaren historiari buruzko liburuak edo Octavio Pazen *El laberinto de la soledad* saiakera bildu-



SIMONE DE BEAUVOIR, KASIK AMA BEZALA

80ko apirilaren 16a da, goiza. Yoyesek begiak puztuta dauzka gaizki lo egin duelako. Pentsak albiste bat dakar, aipatu gabe utziko ez duena: Jean-Paul Sartre hil da: “Hil da nire ezinegona ulertzen eta ezagutzen lagundu zidan maisua”, jarriko du egunerokoan. “Niretzat garrantzitsuagoa den Simone de Beauvoir geratzen da, baina, batez ere, hark borrokatu zuen ezinegona, desesperazioa, goragalea geratzen dira, eta hainbatek borrokatzen ditugu ahal dugunean”.

Beauvoirren aipamena ez da debaldekoa, 1982ra bitartean irakurriko dituen liburuen artean behin baino gehiagotan agertuko baita. *Les mandarins*, idazle frantziarraren nobela ezagunena eta *La vieillesse* saiakera komentatzen ditu, eta *Le deuxième sexe* aurretik irakurri duela adierazten du. Aurrerago, 1986ko apirilean Beauvoir hil zela jakin zuenean, “ama balitz bezalako mina” sentitu zuela idatzi zuen, “izan ere, ez dago dudarik nire ‘ama intelektual’ izan dela”.

Heriotzaren berri izan ondoren egindako apuntean eskertu egiten dio krisi existentzialetan haren liburuek emandako laguntza eta aitortzen du urtebete lehenago, Parisen, amestu zuela Beauvoirrekin topo egitearekin. Nerabezaroa markatu zion: “Ezin nuen sinetsi norbaitek hainbeste erakutsi ahal izango zidanik, hainbeste arrazoi-ekin eta argitasunekin baieztatuko zizkidanik intuizio ugari”.

ma leitu izanak erakusten duten bezala. “Iritsi eta berehala irakurri izan banu buruhauste batzuk kenduko nizkion nire buruari, oso zorrotza eta sarkorra da, mexikarren idiosinkrasia eta izaera esplikatzeko saiatzen da”, idatzi zuen Nobel saridunaren lanaz.

Baina mexikarren izaera eta berak Euskal Herritik ekarritakoa uztartzeko zailtasunak ere aipatu zituen aurrerago, 1982an, Oscar Lewisen *Pedro Martinez* liburuaz ari zela: “Harritu nau, baina ez dakit positiboki, nekazari mexikar baten istorioa kontatzen duen nobela baita eta mexikarraren idiosinkrasia esplikatzeko saiatzen da, eta horrek nahiko harritu nau. Nola erlasionatuko naiz jende honekin?, pentsatzen dut segituan eta babesgabe sentitzen naiz euren iza-teko moduaren aurrean. Ni beste modu batekoa egin ninduten eta deskribatzen duen medioan guztiz galduta sentitzen naiz. Zuhurtzia beharko dut”.

Amatasuna eta Julio Cortazar

Amerikan aurkitu zuen kulturarekin moldatzeko kezka gorabehera, gehien estutzen duen gaia Ozeanoaren beste aldetik dator. 1982ko urtarrilak 28: “Puñala bezala sentitu dut Mexikoko egunkari batzuek dakarten notizia, esanez ETako militante batzuk D. F.-n ETarentzat dirua biltzen ari garela”. Ez du ulertzen zergatik egozten dioten 79tik utzia zuen militantzia. “Badakit hemen daramadan denbora guztian ez dutela nitaz hitz egiteari utzi, aukera bat edo beste dela-eta, baina oraingoan, ia konbentziturata nengoen onartu zutela azkenik herritar normala naizela, hemen bizitzen; eta horrelakoekin etortzen zaizkit”. 1984an *El País* egunkariak berriro seinatu zuen talde armatuko zuzendaritzako kide gisa eta bere lagun eta senideek argitaratutako liburuan diotenez, ETaren baitan ere erakundera itzuliko zela espero zuten.

Yoyesek bere biderei jarraitu zion. Egunerokoan hurrengo data 1982ko martxoaren 12a da: “Emozio sakona, bakardade erraldoia, bi malko ere bai. Haurdun nago”. Amatasunak beste fase bat zabaltzen du egunerokoetan eta irakurtzen dituen liburuek ere zalantza berriak azaleratzen dituzte. Julio Cortazarren *Rayuelari* buruz ari denean, adibidez: “Momentu batean dio ‘... jende horietan ekintza sozialak koartada baten antz handiegia zuen, nola izaten di-

ren seme-alabak amen koartada, bizitza honetan merezi duen ezer ez egiteko...! Bilatu egin dut grabatuta geratu zaidalako; Akaitz jaio eta berehala kezkatu ninduen kontu bat izan zen, askotan etortzen zitzaidan burura bera eduki izanak ezin zuela eragotzi nik premia sentitzen jarraitzea nire burua ezagutarazteko, adierazteko, nire burua bilatzeko, nire burua sortzeko eta sortzeko”.

Hiru urte geroago *Libro de Manuel* irakurri zion argentinarrari. Parisen bahiketa bat prestatzen ari den talde iraultzaille argentinaren baten istorioa da eta ondorengo belaunaldiek pentsarazi zion: “Ez dakit gure seme-alabek inoiz ulertuko ote duten garai batean denok horditu gintuen sukar hura, duda gehiagorekin edo gutxiagorekin, egia, baina denetan sukarrarekin. *Libro de Manuelek* haienezat eginga dirudi, gure ametsetatik zerbait gera dadin, baita amets horiek bizi izan ziren modutik ere”. Euskal Herrira itzulia zen lerro horiek idatzi zituenean eta aurkitu zuen gizartearekin etsituta zegoela sumatzen da, baina ez du irakurtzeko zaletasuna galdu eta nobela bat idaztea

» Nobela bat idazteko asmotan zebilen Euskal Herrira itzuli zenean, Milan Kunderaren ‘Izatearen arintasun jasanezina’-ko pertsonaien antzera egituratua

» Ama izan ondoren kezka berriak adierazi zituen bere irakurgaien komentarioetan, hurrengo belaunaldiek eurenak bizi izandako “sukar” iraultzaillea nola ulertuko zuten, adibidez

dauka buruan, nahiz eta izan dezakeen harreraz zalantzak eduki. Cortazarri buruz ari dela, adibidez, zera dio: “Euskadin, berak bezala idatziko lukeen norbait irentsi egingo zuen jendeak”.

Nobela idazten hasia ere bazen, besteak beste James Joyceren *Ulises* eta Milan Kunderaren *Izatearen arintasun jasanezina* aipatzen dituen 86ko apirileko apunte bat irakurrita jakin daitekeenez. Azken liburu horrek derrigortzen du berak kontatu nahi zuen istorioa aldatzera: “Horrorez ikusi nuen nobelako protagonista nagusiak bi bikote direla, nirean bezala!, (...) nork sinetsi behar zidan, jarraitu izan banu eta nire lana arrakastaz bukatu, nire ideia hori irakurri aurrekoa zela? Ezin dut horregatik utzi, baina egia esan aspaldian ez dut lanik egin eta honek izugarri desanimatzen nau”.

Zenbait zirriborro utzi zituen idatzita bost hilabete geroago ETAk hil baino lehen, bukatutako obrarik ez ordea. Bere egunerokoak geratu dira, sinplifikazio politikoetan kabitzen ez den ibilbide pertsonal eta intelektuala ezagutzeko lagungarri. ■



Kalean da irail-urriko

aizu!

- Gaskoiak eta euskarak bat egiten duten lurraldea
- Atlantikaldia jaialdia Erreterian
- Ibon Gaztañazpi, arin-arin
- Pegatinek kontatzen digutena
- Zinema, autotik
- Apustuz apustu

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bertso-enkoadratzeak eta botere-tramak



Iratxe Retolaza



Nork

XABI PAYA, PATXI GALLEGO

BERTSOLARI

100. zenbakia, 2015

Bertsolari aldizkariak bertsoa eta komikia uztartzearen alde egin du azken urteotan. 89. zenbakian ekin zioten Patxi Gallegok eta Xabi Payak *Nork* liburuaren lehen orriak argitaratzeari, *Hamar bertsolaritxo* izenburupean. Amu izan ziren horiek, 100. zenbakian *Nork* osorik argitaratzeko.

Komikian ohikoak diren bide zenbait uztartu dituzte lan honetan: ukronia, detektibe-istorioa eta parodia. Bada ukronia ttiki bat, 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusian abiatzen delako trama, baina, fikzioaren jolasari ekiteko: izan ere, Andoni Egaña irudikatzen dute txapeldun 2013an. Are gehiago, agurra egitera doala, txapelketan bertan hil egiten dute Egaña. Hor abiatzen da detektibe-jarduna, eta baita parodia ere.

Parodia horren lehen urratsa, detektibeen profila da: ez dago detektibe bakarra, ohikoa denez, detektibe-taldea baizik: Bertsokop, bertso-eremuko teknologia-saioei keinu egiten diona; Amaia Ezpeldoi, Itxaro Bordaren nobeletako detektibe errurala (komikian idazlearen alter ego gisa irudikatua); Jesika Fletxeberria, kultura popularreko detektibea gogora dakarrena; eta Amezketa aguzila, Fernando Amezketa marrazki bizidunetako pertsonaia. Detektibeen hautuan islatzen den moduan, umorea sortzeko testuarterkotasunarekin egiten dute jolas; bertso-munduko pertsona ezagunen ondoan, kultura bisualean ezaguna den jendea irudikatu dute (politikariak, sukaldariak, musikariak, aurkezleak...), eta baita uneren batean komiki-pertsonaiak ere (*Gartxot*, *Ipurbeltz*, *Punki*, *Xabiartxo*, *Xabinaitor*, *Zakilixut*...). Bikain asmatu dute imajinario kolektiboan erroturiko

kultura bisuala identifikatzen, eta Patxi Gallegok beste behin aurpegierak zein gorpuzkerak irudikatze trebetasuna erakutsi du.

Xabi Payaren ekarpena funtsezkoa izan da, bai komikian bertsoak tartekatzeak, bai bertso-munduen joerak, ohiturak zein jarrerak parodiatzeko ere. Gaiari dagokionez, bertsolaritzaren eta kultur gintzaren botere-jokoak, autoritate-talkak eta lehiak dira nagusi. Bide horretatik, besteren artean, bertsolaritzan jada esplizitu egin diren kezka zenbait jorratzen dira: bertsolarien genealogiak, genero-gatazkak eta lurralde-ordezkaritzak. Nolanahi ere, genero-gatazkak bertsolari jakinetan gorpuzten ditu (gorpuztasunaren irudikatze sexistaren bat ere agertuz); eta lurraldetasunaren inguruko gogoetak, aldiz, ez dira bertsolari jakinetan gorpuzten, estalkipean irudikatzen direlako herrialde-ordezkariek.

Testuarterkotasunak testuarterkotasun, tentsio narratiboari eusten dio komikiak: batetik, tramaren bilakaeran, ikerketaren inguruko informazioa ongi dosifikatu delako (eta bigarren mailako tramak ere ederki josi direlako); bestetik, tipografia-hautuei, enkoadratze anitzei eta komiki-joskera aberatsari esker, erritmo bisualari ere ezin hobeto eutsi diolako narrazioak. ■

Xabi Paya eta Patxi Gallego, liburuaren aurkezpen egunean.



» TELEGRAMA

Kontzertu sorta ederra prestatu dute Elorrioko Gaztetxean herriko jaiekin bat eginenez: irailaren 8, 9 eta 10ean **Dead Bronco**, **Summum Art** eta **Niña Coyote eta Chico Tornado** entzuteko aukera **STOP** Abuztutik bisitatu daiteke Donostian **Welcome Mr. Hitchcock** erakusketa: zine zuzendari ezagunak Euskal Herrian egin zuen bisita jaso dute argazkitan: Donostia 2016ren egoitzan ikusgai **STOP Durango Reggae Jaialdia** antolatu dute Plateruenan irailaren 10ean: Kolonbiatik **Alerta Kamarada** taldea etorriko da eta Gasteiztik berriz **Kultura Roots Band STOP**

» KONTZERTUA

Brahms krematsua



Montse Auzmendi

Musika Hamabostaldia

FRANKFURTEKO
IRRATIKO ORKESTRA SINFONIKOA
ANDRA MARI ABESBATZA.

Orkestra zuzendaria: Philippe Herreweghe.

Andra Mari Abesbatzaren zuzendaria:

Andoni Sierra. Bakarlariak: Ilse Eerens (sopranoa),

Marie-Claude Chappuis (mezzoa),

Robin Tritschler (tenorea), Thomas E. Bauer

(baritonoa), Steven Isserlis (biolontxelo).

Egitaraua: Beethoven, Haydn, eta Brahmsen obrak.

Lekua: Kursaal Auditorioa.

Egunak: abuztuaren 27a eta 28a.

Aurtengo Musika Hamabostaldiak momentu onak eman dizkigu, dudarik gabe. English Baroque Soloists taldea, Genevako Antzoki Handiko Balleta, *Don Giovanni* opera... benetako saio interesgarriak izan ditugu. Orkestra handien bisitak ere izan ditugu. Budapest Festival Orkestrarekin disfrutatu genuen emandako hiru saiotan, eta Frankfurtoko Irratiko Orkestra Sinfonikoak erakutsi zuen bere maila altua. Talde hau, 1929. urtean sortua da, Alemaniako hirugarren irratiorkestra zaharrena da eta estilo guztietan dago trebatuta, nahiz eta erromantizismoan espezializatua egon. Aldi honetan, klasizismoa izan zen bi egitarauen protagonista. Emaizta, ona.

Lehenengo kontzertuan Beethoven entzun genuen. *Coriolano* oboera behar den zirrarakin iritsi zitzaigun, adoretua, aiurriduna. Jarraian, 9. *Sinfonia re minorrekoa*, op. 125. *Coral* izan zen arratsaldeko plater fuertea. Philippe Herreweghe zuzenda-

riak proposamen zertxobait “nerbiosoa” egin zuen. Agian entzuten ditugun bertsoak askoz erromantikoagoak dira, la-saiagoak, eta horrexegatik harritu gintuen Herrewegheren planteamenduak. Halere, freskoa eta diferentea iruditu zitzaidan. Andra Mari Abesbatzak taxuz egin zuen bere interpretazioa. Taldearen 50. urteurrena da, eta publikoak bereziki txalotu zuen haien lana. Bakarlariek ondo baina distirarik gabe bete zituzten beren paperak.

Hurrengo egunean, berriz izan genuen Beethoven hasiera bezala. *Etxearen sagarapena* obertura oso luzitua egin zuten. Haydnen *Biolontxelorako kontzertua*, do maiorrekoa, hob. VII B1 lana, berriz, nahiko triste eta higatua iritsi zitzaigun. Steven Isserlis biolontxelo jolea sona handiko musikaria da, eta teknika fina erakutsi zuen uneoro. Baina oso proiektio gutxi izan zuen haren soinuak, alde batetik, eta bestetik, interpretazio laua eskaini zuen. Propina jotzerakoan ere ez gintuen konbentzitu. *El cant dels ocells* jo zuen, hain mantso, hain amane-ratua, ia ezagutezina. Halere, segituan ahaztu genuen hori guztia, Brahmsen 1. *Sinfonia*, do minorrekoa, op. 68 lanaren txanda iritsi zenean. Zoragarria. Tempi perfektuak, fraseaketa malgua, adieraz-kortasuna, den-dena puntuan obra eder honen bertsio disfrutagarria emateko. Oso deigarria izan zen egurren kalitatea (ze flauta ederra!), eta sokaren leuntasuna. Herreweghek erabat asmatu zuen lan honen ikuspegiarekin. Gozoa. ■



Philippe Herreweghe
orkestra zuzendaria.

Klasizismoak hartu du Bilbo

LA RITIRATA-REN KONTZERTUA

Aste Nagusiaren barruan, abuztuaren 23an, Bilboko Gizakunde elizan eskainitako emanaldia. Euskal Herrian hurrengo hitzordua irailaren 9an izango dute, Lizarrako Antzinako Musikaren 47. Astean. Hil honetan bertan plazaratutako Antonio Caldara: *The Cervantes Operas* diskoko piezak aurkeztuko ditu han La Ritiratak.



TESTUA ETA ARGAZKIA:
Dabi Piedra

Bilboko Aste Nagusiak aukera bikaina ematen du urtero antzinako doinuez gozatzeko, Gizakunde elizako testu-guru paregabean. Aurtengo edizioko zortzi kontzertuen artean, La Ritirata taldearen emanaldia azpimarratzekoa da, klasizismo garaiko piezak jo baititu, orain dela 200 urteko musika tresnen gisakoak erabilia. Ordu eta laurden pasatxoko emanaldia izan da, entzuleak gustura uzteko modukoa.

Jose txu Obregon bilbotarrak gidatzen du La Ritirata. Kontzertuaren ezaugarrien arabera, formazioa aldatu egiten dute: Bilbon soka laukoteak jo du. Hiko Kurosaki japoniar jatorriko austriarrak eta Miren Zeberio tolosarrak biolinaren ardura izan dute. Daniel Lorenzo espainiarrak jo du biola eta Jose txu Obregonen esku egon da biolontxelo. Klasisismoaren garaiko ezaugarriak dituzte



Klasizismoaren ezaugarrietara moldatutako musika tresnekin aritu ziren Hiko Kurosaki eta Miren Zeberio (biolinak), Daniel Lorenzo (biola) eta Jose txu Obregon (biola).

tresnek, ez dira gaur egunean erabiltzen direnak bezalakoak. Esaterako, biolontxeloak lurrian ezartzeko ziria falta du eta tresna altzoan hartuta jo behar da, duela bi mende bezala.

Errepertorioak hiru zati izan ditu, bakoitza musikari bati eskainia. Lehenik eta behin, klasizismoko konpositore ezagunenetako baten, Joseph Haydn austriarraren, doinu gozoek hartu dute Gizakunde eliza. Klasisismo bete-betean sartzen dira 1790eko hamarkadan sortutako pieza horiek.

Kontzertuaren bigarren zatiko doinuak, ordea, klasizismoaren hastapenetako estiloaren erakusgarri dira. Luigi Boccherini italiarraren 1790eko hamarkadakoa musika alaiarekin gozatzeko aukera izan dute entzuleek. Hirugarren zatiak biribildu du emanaldia, Juan Crisóstomo Arriaga bilbotarraren

doinuei esker. Klasisismotik erromantizismorako bidean diren soka laukoterako piezak, konpositorearen jaiotetxetik metro batzuetara jo ditu La Ritiratak, seguruenez Arriagak berak ondo baino hobeto ezagutu zuen elizan.

Aste Nagusiko ziklo honetan ohikoa denez, jendez lepo egon da Gizakunde eliza. Eserleku guztiak bete dira eta zutik entzun dute kontzertua dozenaka lagunek. Amaieran, txaloak lau musikarientzat. Hauek, esker onez, programatik kanpoko pieza bat jo dute, Boccheriniren *Pasacalle de la musica notturna delle strade de Madrid*.

Entzuleak gustura, eta, La Ritiratako laukotea ere, izerditan blai baina kontzertu gustagarria eman izanaren sentsazioarekin etxeratu da. Madrilgo kontserbatorioan dabil Jose txu Obregon eta harentzat berezia da jaioterrira itzultzea. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Nerea Ibarzabalek 2014an Erreterian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Santa Barbara zure bizitza B*
Gaia: "Nazkatuta zaude zoazen tokira zoazela denak zuri begira edukitzeaz".

Berdin du joan titi tarte
tapauta nahiz ____
badira zenbait begi ez dutenak
ni ____ bizitzen uzten
euren asmoak senti ditzaket
____ burutan gorpuzten.
Egoera hau ez duenari
sinesten edo ____
esango diot begiradek be
____ biluzten. (bis)

Jada berdin du kalean gauez
____ tabernan gurutzatu
hainbat mutilek ohi gaituzte gu
ixiletik ____
ta ezer egiten ez dutenez ____
ezingo gara kexatu
gero ____ "guapa" ta "guapa"
digute bai oihukatu.
Zuen iritzia gorde ezazue
ez badizuet _____. (bis)

Oharkabeen ____ guztioi
babes baten bila dabiltz
hezi beharrean gure ____
txiki-txikitatik berriz.
Hemengo denok bizitzan dugu
holakoa ____ aldiz
eta guztiek egingo ____
mila kexu ta mila hitz
mutil ta neskon ____ hau
alderantziz ____ balitz. (bis)



E	I	K	U	S	T	E	N	E	I	E	T	F	L	J
B	A	D	A	K	I	T	E	L	A	J	J	P	P	P
N	E	A	M	O	F	L	A	R	E	O	G	E	C	Z
N	D	F	G	C	E	A	I	N	A	H	I	Z	L	B
Z	E	H	I	A	M	V	N	A	R	M	L	A	T	E
T	B	S	B	Z	U	T	E	N	E	T	S	J	T	G
N	R	H	K	B	M	N	A	I	N	A	M	F	D	I
D	M	G	U	A	G	O	S	O	I	G	P	I	E	R
N	A	Z	I	R	Z	C	S	I	A	L	B	U	F	A
N	E	T	S	U	K	A	R	E	G	V	R	T	K	T
E	C	O	H	S	R	G	N	H	C	E	B	A	G	U
C	P	H	N	Z	A	P	C	H	N	J	L	K	R	V
T	T	D	J	O	H	B	R	B	V	I	C	S	T	T
D	V	T	S	N	A	G	V	V	T	L	E	E	V	T
P	S	L	P	J	U	O	D	U	D	M	I	L	A	C
H	N	U	I	R	L	C	M	P	R	B	O	L	R	J

Gurutzegram

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										

Ezker-eskuin:

1. Abarasketako argizari-hondakin. Aurpegitik at ematen den musu. 2. Zurezko zati luzea eta laua. Erantzun zorrotz, errimadun. 3. Bakoitzaren jokamolde. Zendu. Zakur. 4. **Argazkiko lorea**. 5. Tantaz tanta. 6. Azken eta hirugarren bokalak. Bigarren urtaroa. Erabat, txit. 7. Belarrondoko,



Habib M'henni-CC By SA

zaplazteko. Arte. 8. Abarka moduko oinetakoa. Elikatzen. **Goitik behera:**
1. Barruz sentitzen ez duena; axolagabe. Uzker. 2. Hitzez. Letra izena. 3. Eder, sotil. Izan ezik, salbu.
4. Aluminoaren sinboloa. Ohola.
5. Ontzi baten behealde.
6. Txinparta. 7. Ingeles luzera neurria. Bizkaiko herria. 8. Oinarrizko edari. Ados. 9. Arnas ezak hil. Zazpi eguneko epe.
10. Zein lekutara. Oinarri, euskarri.

Sudokua

Erraza

3		8			4	7	5	
			8			2	9	
		2		7	6			8
1			7		8			4
	8	9	4	6	5	3	7	
7			2		9			5
8			6	9		4		
	4	7			2			
	2	1	5			8		7

Zaila

		1					4	
	9				1	6		
5				9				7
1			6			7	5	
	8	9				4	6	
	5	4			7			1
4				3				8
		3	8				7	
7						2		

Soluzioak

Berdin du joan titi tarte / tapauta nahiz **erakusten** / badira zenbait begi ez dutenak / ni **lasat** bizitzen uzten / euren asmoak senti ditzaket / **euren** burutan gorpuzten / Egoera hau ez duenari / sinesten edo **ikusten** / esango diot begiradek be / **badakitela** biluzten / Jada berdin du kalean gauez / **nahiz** tabernan gurutzatu / hainbat mutilek ohi gaituzte gu / **ixiletik** **begiratu** / ta ezer egiten ez dutenez gu / ezingo gara kexatu / gero **gainera** / "guapa" ta "guapa" / digute bai oihukatu / Zuen iritzia gorde ezazue / **ez** badizuet **eskatu** / Oharkabeen **neska** guztioi / babes baten bila dabiltz / hezi beharrean gure **mutilak** / txiki-txikitatik berriz / Hemengo denok bizitzan dugu / holakoa **mila** aldiz / eta guztiek egingo **zuten** / mila kexu ta mila hitz / mutil ta neskon **egoera** hau / alderantziz **izan** balitz.

6	9	2	7	2	3	3	6
9	2	1	3	3	5	7	4
8	8	5	4	6	9	4	6
1	1	9	8	1	7	3	8
6	9	3	1	5	1	6	8
2	3	2	2	6	4	8	7
6	2	1	3	2	4	8	7
1	7	1	1	7	6	2	5
5	5	4	4	8	1	2	5
3	8	1	2	7	6	9	4

Zaila

9	2	7	2	3	3	6	9
6	9	2	1	3	3	5	7
8	5	4	6	9	4	6	8
1	1	9	8	1	7	3	8
6	9	3	1	5	1	6	8
2	3	2	2	6	4	8	7
1	7	1	1	7	6	2	5
5	5	4	4	8	1	2	5
3	8	1	2	7	6	9	4

Erraza

Esker-eskuin:
1. Saper, Muiñ. 2. Ohol, Zirro.
3. Rol, Hil. Or. 4. Zitorra.
5. Tontakia. 6. Uf, Uda, Oso.
7. Txakilo, Erti. 8. Zata, jaten.
Goitik behera:
1. Sot, Putz. 2. Ahoz, kax. 3. Polti.
4. At, Taula. 5. Hondoa.
6. Zirta. 7. Milla. 8. Uf, Akort.
9. Ito, Aste. 10. Nora, Oin.

Cathy Edwards. Komunikabide komunitarioen defentsan



Nekez iraunen dute komunikabide komunitario eta libreek haien alde doazen politika publikorik gabe. Are gutxiago, komunikabideen kontzentrazio geroz eta handiagoaren panoraman. Hori dio Cathy Edwards Kanadako telebista komunitarioen elkarteko buruak, gogor kritikatzuz sektoreak pairatu murrizketak. Munduko komunikabide komunitario eta libreen mapa marrazten hasiko da beste kazetari batzuekin batera, Komunikabide Libreen Munduko Foro Sozialean hori erabakirik.

“Interneten gobernantzan egon behar lukete herritarrek”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

Hedabideetan engaiatu

“Nire kabuz hasi nintzen komunikabide komunitarioen alorrean, 1988an, boluntario. Luze aritu naiz sektore pribatuan lanean, publikoan ere bai, antzerkian, film independenteetan... Baina azkenik, 2008an CACTUS sortu nuen, telebista komunitarioen eta haien erabiltzaileen Kanadako elkar-tea. Egun badituz proiektuak sektore pribaturako ere, baina garrantzitsua iruditzen zait jendeak hedabideetan engaiatzea, eta horregatik hobesten dut sektore komunitarioa”.

Zuk esana: lau konpainia handiren esku dira Kanadako kasik komunikabide guztiak. Pairean, nola dabil sektore komunitarioa?

300 kanal eta 200 irrati baino gehiago-rekin, komunikabide komunitarioen sarea oso zabala eta indartsua zen berriki arte Kanadan. Urtero banatu 100 milioi dolarreko diru-laguntza moztu egin digu aurten Gobernuak, sektore pribatura bideratzeko. Sekulako diru desbideratzea da! Erabakitzaileez hurbil dira konpainia pribatuak eta geroz eta gehiago bide bazterrean geratzen dira beste bi sektoreak. Arlo guztietan presente den bilakaera sendi dugu: politika boterea galtzen ari da, finantzarien onurako.

Komunikabide pribatuak ez dira nahiko.

Komunikabide pribatuez gain, sektore publikoa eta komunitarioa presente egon behar dira. Hiru sektore horien motibazioak arraz ezberdinak dira: pribatuak etekina du helburu; publikoak informazioa herritar guztiei iristea du xede; eta komunitarioak berriz, gutxiengoan direnen bozgorailu izatea, misio

hori betetzera ez delako heltzen sektore publikoa. Horregatik ere bada botere publikoen ardura komunikabide komunitarioen laguntzea.

Komunikabide Libreen Munduko Foro Soziala egin berri duzue.

Komunikabide komunitarioen eta libreak bildu berri gara, Montrealen, Munduko Foro Sozialaren (MFS) kari. Maleruski, Kanadak parte-hartzaile anitzi bisa ukaturik, uste baino gutxiago bildu gara. Bosgarren edizioa zen aurtengoa.

Hainbat konpromiso hartzeko unea izan da.

Batetik, gisa horretako nazioarteko topaketak sustatzeko engaiamendua hartu dugu, batuz azkarrago garelako. Bestalde, mundu mailako komunikabide independenteen mapa osatzeko konpromisoa hartu dugu. Mapa horrekin batera komunikabideen kontzentrazioa islatzen duen eskema ere osatuko dugu, egoeraren larritasunaz ohartarazteko. Hirugarrenik, komunikabide askeetan dabilen kazetarien babesteko neu-



Montrealen egin Munduko Foro Sozialean izan ginen Cathy Edwardsekin (argazkian, beste kazetari batekin solasean). Komunikabide Libreen Munduko Foro Soziala egin zuten foro orokorraren barruan, eta hedabideen alorrean MFSren praktikak hobetzeko hainbat proposamen aurkeztu zuten.

rriak ere garatu nahi ditugu. Urria aitzin lotuko da lantalde bat betebeharrak horri. Kanadako Gobernuaren murrizketa edota Brasileko komunikabide korporatibistek estatu kolpean izandako esku sartzea salatzeak testuak ere bozkatu ditugu.

Munduko Foro Sozialari ere zuzendu zarete.

Bai, software programa libreak aukatzea exijitzen duen kanpaina hasiko dugu. Barne prozesu honen bidez MFSren praktikak hobetu nahi ditugu. Numerikoaren eremu horri doakioenez, datu base libreak eta estatatzailak libreak lehenesteko betebeharrari ere lotuko gara.

Numerikoan ere denak egon daitezke baina ez toki berean.

Net neutrality printzipioa ezinbestekoa da, datu jario guztiek tratamendu bera ukan ahal izateko. Gaur egun ez da horrela, korporazio handi bakar batzuen esku dira interneteko enpresa gehie-

nak. Adibidez, Walt Disney konpainiak merke-merke eskaini ditzake bere produktuak, baina komunikabide independente txikien produktuak eskuratu ahal izateko, anitzez karioago ordaindu behar dugu. Errealitate horren aurka doa *net neutrality* izpiritua.

Zein dira sektore numeriko demokratiko baten baldintzak?

Noski, azaldu *net neutrality* printzipioa. Bestalde, YouTube eta halako partekatze plataformek aske izan behar lukete, eragin komertzialetan urrun. Interneten gobernantzan egon behar lukete herri-tarrek ere, internet ez dadin, gaur egun bezala, bakar batzuen interes finantzario eta politikoentzat izan. Azken elementua eta ez gutxienezkoa, internet kudeatzen duten konpainiek hodi bat izateari mugatu behar litezke. Hau da, edukia kontrolatzen ez duten edukizailak izan behar litezke. Internet sarea zerbitzu publikotzat hartu beharko litzateke, guztiontzat dagona eta guztiok erabil dezakeguna.

Nori zuzentzen diozue aldarria?

Telekomunikazioak kontrolatzen dituzten eragileei. Baina maleruski konpainia handien presioa handiagoa da eta oso zaila zaigu eragina ukaitea. Gainera, merkataritza askeen aldeko akordioek [TTIP, CETA...] erabakitzaile horiek auzipertatzeko aukera dakarte. Benetako internet sare horizontal baten alde doazen politikak harraraztea neke bilakatzen da.

Herritarrek kontziente al gara horretaz guztiaz?

Internetek eskaini informazio pilaren parean badakite ikerketa minimo bat egin behar dutela. Haatik, kazetaritza *mainstream*-arekin ez da horrela, kazetaritza izanki sinesgarria dela uste dute. Alta, kazetaritza *mainstream*-a xeheki begiraturaz gero, konturatzen gara mezu bera errepikatzen dabiltzala guztiak. Hala ere, anitz dira kontziente, baina komunikabide alternatiboak dituzte eskas. Zaharra ordezkatzeko duen estandar berria eskas dugu. Hori horrela, sektore komunikatiboak are garrantzi handiagoa du. ■



Karteristen sindikatuak Kutxa Kultur festibala salatuko du konpetentzia desleiala egiteagatik

Euskal Herriko Karteristen Sindikatuak ohar gogorra bidali du hedabideetara joan den astean Donostian ospatu zen Kutxa Kultur festibalaren harira. Karteristek iragarri dutenez, auzitara eramango dute jaialdia, Kale Lapurretaren Konbenio Kolektiboa urratu duelakoan: “Gure sindikatuko zenbait langilek esku hutsik itzuli behar izan zuten Igeldotik, euren eskuetan suertatu ziren diru-zorro guztiak erosi berritan bezain hutsik zeudelako”, irakur daiteke agirian. Salatu dutenez, “garagardoaren ziria” egin zuen festibalak, edaria ordaintzen ari zirelakoan musika zaleek gainean zeuzkaten sos guztiak ebatsiz. “Etika profesionalaren kontrakoa da iruzur hori, Euskal Herriko karteristok inoiz ez genuke hain trikimailu zabarra erabiliko. Konpetentzia desleiala iruditzen zaigu, guk beti egin izan baitiogu uko mota horretako atrakoak egiteari”, gaineratu dute.

DONOSTIA KUTXA KULTUR FESTIBALA	
ura	2,20 €
edalontzia	1,00 €
freskagarria	3,20 €
keler	4,00 €
keler handia	8,50 €
red bull	4,20 €
energy drink / sugarfree / red, lime & tropical edition	
kalimotxo	5,20 €
kalimotxo handia	9,20 €
txupitoxa	3,20 €
jägermeister / tekila / thunder bitch	
ontherocks kopa	5,20 €
konbinatua	8,20 €
red bull konbinatua	8,20 €
premium konbinatua	10,20 €

Gezurra badirudi ere, ez da montajea

Bestalde, Kutxabanke maileru-lerro berri bat iragarri du hurrengo urtean Kutxa Kultur festibalera joan nahi dutenentzat: “Ulertzen dugu garagardoa garestia zela diotenen kritika, baina ulertu behar da ez dela gastu bat, inbertsio bat baizik: epe luzera amortizatuko dute erosleek edandako garagardoa”, esplikatu du Kutxabankeko komunikazio arduradun Joseba Andoni Marmolaurpegik.

SAREAN ARRANTZATUA

Lehenengoaren aurrean 7urteko goikoek ordainduko



Ateek ere oporrak behar dituzte



Espainiako Vueltako antolatzaileak Euskal Herria saihesten saiatuko dira datorren urtean, abertzaleen oldarraldiak kikilduta

Espainiako futbol ligarik gabeko asteburu luzeak ekarriko ziren asperdurari aurre egiteko, dozenaka lagun bildu ziren joan den astean hitz joko fina egin eta Espainiako Vueltari Espainiara buelta dadin eskatzeko elkarretaratzeetan.

“Nazkatuta gaude! Nolatan Vueltas-paña Euskal Herrian? Hemendik igaro nahi badute, behintzat alda diezaiotela izena probari: Espainiako ETA Euskal Herriko Vueltak; hori hasteko!”, adierazi

zuen segurtasunagatik izena ezkutuan gorde nahiago izan zuen gizon batek. Gure berriemaileak erredakziora itzuli eta baja luzea eskatu du, horren erradikalitasun bortitzak ikaratuta.

Bestalde, nabarmena izan da Vueltak trafikoan izan duen eragina. Bereziki, substantzia dopatzaileenean.

Hau Espainia ez dela garbi utzi nahi zuen zale bat.




EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK




943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA





1516 2016

Bake-itunak

San Telmo Museoa, Koldo Mitxelena Kulturunea

2016-6-18 / 2016-10-2

BAKEA
PAZ

STM
San Telmo Museoa

KMI
kulturunea



Antolatzaileak



DSS2016.EU

STM
San Telmo Museoa



DSS2016.EU: Erakunde laguntzaileak



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Batzarra
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

donostiakultura.com



GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE
INSTITUTO ESPAÑOL DE CULTURA

Babesle-orkorra

Telefonica

Laguntzaileak



Gobierno de Flandes



San Telmo Museoa: Patroko pribatuak



ELDIARIO VASCO



San Telmo Museoa: Enpresa ongieleak

berria



GARA

naiz:

